

# Arrasate

UPRESS

1996ko  
Azaroak 8  
339. zenb.

Hondarrekin  
eraikitako  
auzoak

# Txabolak



# Arrasateko OSASUN GIDA

## DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ..... ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎77 12 63

## DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

## FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

## GINEKOLOGOAK

- GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea ..... ☎79 20 18

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## MASAIARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

## MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎79 29 95

## PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

## REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ..... ☎77 00 40

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎79 44 22

# Ezberdintasunean gara berdinak

**B**eti gurea onena dela diogu: Euskal Herrian ondo jaten dela, jendea atsegina dela, edo hemen bezain ugari ez dela inon poteatzen, pintxoak... giriak orteroak direla sandalienen azpitik galtzerdiak daramatzatela-ko, japoniarrak taldean ibiltzen direla.... Bere burua espainola sentitzen duenak berriz, zera esango luke: paella dela goxoen, espainolak morenoak eta guapoak direla, giriek ez dutela bekainik, beti "sorry" esaten dutela, mozkor izugarriak harrapatzen dituztela. Nazkatu egiten nau beti horrelakoak entzuteak. Niri bost axola zer naizen, euskalduna ei naiz, bertan jaio eta bizi izan naizelako. Paperek



Marta del Campo

espainiarra naizela diote, eta hori ere bost axola!

Baina ez pentsa, Benitoren Orreagako gatazka entzuteak zirrara sortzen dit, eta ni hiltzean norbaitek aureskua dantzatzea gustatuko litzaidake. Baita beste modu batean Raimundo Amadorrek emozionatzen nau. Zer esanik ez Brasilgo musika, bakailaua dantzaten ere egundoko gauak pasatu ditut, eta zer? batzuek apatrida hoieta-koa naizela esango dute, eta berriz ere, niri bost axola.

**“Nire abestia Euskalduna naiz eta ondo nago izango litzateke, eta gauza bera esango nuke afrikarra banintz”**

Ezberdina izatea ez da gauza txarra, dibertigarriagoa da, ez? baina bakoitzarena beti onena dela pentsatzea, eta bestee- nak baliorik ez duela pentsatzea arriskutsua

dela deritzot. Ni euskalduna naiz eta ez nago harro, ez dut uste harro egon behar denik nazionalitate bat edo bestea izateagatik. Nire abestia “euskalduna naiz eta ondo nago” izango litzateke. Ziur aski gauza bera esango nuke afrikarra banintz.

Herri bakoitza ezberdina dela pentsatzea atsegin dut, gero eta homogeenagoak bagara ere, baina ezberdintasun horrekin zer egiten dugu? Aprobetxatu edota gozatu beharrean, gerrak, xenofobia, arrazismoa... gorrotoa nonahi. Batzuetan nire buruari galdetu izan diot nondik datozen gerrak, bai handiak, bai txikiak... gerrak sortzeko faktore indartsuak daudela badakit! baina gu xenofobo hutsak gara. Baita ni ere. Atseginenak, dibertigarrienak... erromatarrak dira. Obelixek zioen: “erromatar hauek zoraturta daude!” Eta izatekotan erromatar naiz. ■

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka Kalea, 1 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Bernardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Disainua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Rosa Mondragon, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro Bengoa, Mikel Inizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urribarren, Fidel Bereizbar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Maider Egües.

Arrasateko Udaleren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## 339. zenbaki honetan

1996ko azaroaren 8an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen .....	<b>10/12</b>	Kulturaren txokoa.....	<b>26/27</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumtxuak.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza .....	<b>28/29</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Denbora pasa .....	<b>32</b>
Astearen errepassoa.....	<b>9</b>	Kirolak jokoan.....	<b>20/23</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>

*Ikuspegia*

**Marta del Campo .....** **3**

*Euren ikuspuntutik*

**Jaione Guezmes .....** **8**

*Hogeita hamar galderatan*


**Jasone Mendizabal.....** **30**

*Aurrez aurre*

**Goio Arana.....** **24/25**

*Erreportaia*

**Txabolak, baimen barik eraikitako arrasatear askoren aisialdi tokiak.....** **17/19**



Aquilino del Fresnok orain 25 urte eraiki zuen bere txabola

# 8 ostirala

■ ZINEA

“Barb Wire” Alai Zineman 7etan eta 10etan.

■ EKBren HITZALDIA

Euskal Kulturaren Bazarreak antolatutako kanpainaren aurkezpen hitzaldia arratsaldeko 7etan Monterronen. Gaia: Euskararen gaur egungo egoera. Hizlaria Juan Mari Mendizabal.

■ AEDren BERTSO  
ESKOLAK

AEDren lokalean hasiera emango zaio arratsaldeko 7etan gaztetxoeren bertso eskolari (10-14 urte) eta 8.30etan helduen bertso eskolari. Parte hartu nahi duenak bertan agertzeko.

■ EUSKAL KANTUEN  
IKASTAROA

Aretxabaletako Lora-mendi Euskara Elkaratek antolatuta, Euskal Kantuen ikastaroaren hasiera. Parte hartzeko lokalera arratsaldeko 7etan hurbildu. Beharrezkoa gitarra jotzen jakitea (gutxi bada ere).

■ IPUIKONTAKETA

Eskoriatzako *Udazken Kulturala* egitarauaren barruan, 3-10 urte arteko haurrentzat ipuin kontaketa Eskoriatzan eta Apotzaga, Bolibar eta Zarimutzeko elizateetan arratsaldeko 4.30etan. Ondoren Eskoriatzako plazan txokolatada.

antolatuta, Artisau Langintzen Ferixa goizeko 10.30etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara frontoian. Artilea, zapatak, larrua, jostailuak, ehungintza, keramika, egurrezko taila, otargintza, paper artisautza, damaskinatua, kikuak, miniaturazko harriak, brontzea eta lore lehorrak.

# 12 asteartea

■ ZINEA

“Reaccion en cadena” Alai Zineman 7 eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.

# 10 igandea

■ ZINEA

“Reacción en cadena” Alai Zineman 5, 7.30 eta 10etan.

■ ANTZEZLAN KOMIKOIA

Galiziako “Breve y exiguo” bikotearen sketch komikoz osatutako antzezlan Gaztetxean arratsaldeko 7etan. 300 pta.

■ AKORDEOI ORKESTRA

Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren emanaldia Gatzagan eguerdiko ordu batean.

■ ARTISAU LANGINTZEN  
FERIXA

Leintz Gatzagako Udalak

# 11 astelehena

■ ZINEA

“Reacción en cadena” Alai Zineman 7 eta 9.30etan.

■ IKASTAROA

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako Zentroan, Estetika eta Makilaia ikastaroaren hasiera.

■ DIAPOSITIBA EMANALDIA

Eskoriatzako *Udazken Kulturala* egitarauaren barruan, L. Ignacio Gonzalez “Bidai ezezagun bat” diapositiba emanaldia Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.

# 13 asteazkena



■ METEOROLOGIARI  
BURUZKO HITZALDIA

Uribarriko jubilatutako etxeak antolatuta, Meteorologiari buruzko hitzaldia Pello Zaballaren eskutik 5etan Uribarriko jubilatutako etxean.


■ BITERI IKASTETXE  
NAGUSIKO EKINTZA  
AKADEMIKOA

Biteri Ikastetxe Nagusiko 1996-97 kurtsoaren ekintza akademikoa Amaia Antzokian 7etan.

# 9 larunbata

■ ZINEA

“Reacción en cadena” Alai Zineman 5, 7.30 eta 10etan.



# kontuan hartzekoak



## ■ IPUIN KONTAKETA

Koldo Amestoiaren esku-  
tik Monterronego Haur Libu-  
rutegian 6etan. 9-10 urteko  
haurrentzat.

# 14 osteguna

## ■ ZINE KLUBA

*El alcalde, el arbol y la  
mediateca* Amaia Antzokian  
9.30etan. Sarrera 400 pta.,  
gazte txartelarekin 350.

## ■ HITZALDIA

Famili eta Gizarte Hez-  
kuntzarako Zentruan, "2000.  
urteko elikadura" eta "Tek-  
nologia berriak elikagaien  
kontserbazioan" hitzaldiak  
4etan. Hizlaria M<sup>a</sup> Tere Alon-  
so.

## ■ ZINE FORUMA

Aretxabaletako Tril Ema-  
kume taldeak antolatuta, "Un  
mundo de mujeres" filmea.  
Ondoren mahaingurua Amaia  
Vazquez psikologo-sexolo-  
goarekin. Loramendiren loka-  
lean 6.30etan.

## ■ DIAPOSITIBA EMANAL- DIA

Eskoriatzako Udazken  
Kulturala egitarauaren  
barruan, Aitor Kortazarren  
"Guatemala" diapositiba ema-  
naldia Kultur Etxean 7etan.

## ■ KUBA IKUSGAI

Arrasateko Komite  
Internazionalistak  
antolatuta, Kubari  
buruzko erakusketa  
informatiboa Monterro-  
nen azaroaren 10era  
arte. Erakusketa  
"Kubarekin bai noski"  
kanpainaren barruan  
antolatu da eta bertan  
Kubaren historiar  
bidaiatxo bat egin eta  
EEBBek ezarri berri  
duten Helms Burton  
legeari buruzko informa-  
zioa ematen da. Ordute-  
gia: Astegunetan  
6etatik 8etara, larun-  
bat eta jaiegunetan  
12tatik 14etara eta  
6etatik 8etara.

## ■ OBJETUAK KONPONDU

Txatxilipurdiko  
*Txatxillikeixetan* talde-  
ko haurrak etxean  
soberan eta egoera

kaxkarrean dauden  
jostailu, arropa eta  
gainontzeko edozein  
objetu jaso nahi dute  
horiek konpondu eta  
ondoren, behar handia-  
goa duten hurrei  
oparitzeko. Jostailu,  
arropa eta objektu  
zaharrak 5etatik 8etara  
Sebero Altubeko  
ludotekan utzi daitezke.  
Epea: azaroak 15.

## ■ GERONTOLOGIA IKASTAROAK

ICTEK Gerontologia  
ikastaro espezializatua  
antolatu du: "Zainda-  
riak: familiarte eta  
profesionalak". Azaroa-  
ren 18an hasi eta 28ra  
arte luzatuko da. 20  
orduko iraupena, arra-  
tsaldeko 5etatik  
7.30etara. Izenematea  
ikastaroa hasi baino 5  
egun lehenago Euskadi-  
ko Kutxan.

## ■ ZINE FORUM ETA MAHAINGURUAK

Aretxabaletako Tril  
Emakume taldeak  
Emakumeendako Zine  
Forum eta Mahaingu-  
ruak antolatu ditu.  
Pelikulek emakumearen  
arazoak aztertuko  
dituzte; emanaldi  
bakoitzaren ondoren  
Amaia Vazquez psikolo-  
go-sexologoarekin  
mahaingurua. Filmeak:  
14 eta 21ean "Un  
Mundo de Mujeres";  
28an "El Poder de las  
Mujeres". Loramendiren  
lokalean 6.30etan.

## ■ CARMINA BURANA

Goikobalu eta  
Goikobalu Txikik, beste  
abesbatza batzurekin,  
Carl Orff-en "Carmina  
Burana" abestuko dute  
Irungo polikiroldegian  
azaroaren 15ean  
gaueko 10etan.



## MARTXE ARANAREN ERAKUSKETA

Martxe Arana margolari arrasatearrak bere pintura koloretsuak jarriko ditu erakusgai aza-  
roaren 8tik 24ra Harresi Aretxean: bodegoiak, paisaiak,  
erretratuak... gai eta kolore guztietako margoak ikusi ahal  
izango dira Harresi Aretxean. Erakusketaren ordutegia:  
Lanegunetan 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan  
12tatik 14etara eta 6etatik 20etara.

Azaroaren 8tik 24ra.  
Harresi Aretxo.  
Laneguneta: 6-8.  
Jaieguneetan: 12-14/6-8.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### Ostirala 8

- 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Egunez eta gauez: Cuellar, Bergara.

### Larunbata 9

- 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Egunez eta gauez: Puy, Bergara.

### Igandea 10

- 10ak arte: Corcuera, Musakola.
- Egunez eta gauez: Puy, Bergara.

### Astelehena 11

- 10ak arte: Urizar, Erguin.
- Egunez eta gauez: Estella, Bergara.

### Asteartea 12

- 10ak arte: Arnezua, Santamaina.
- Egunez eta gauez: Mozos, Bergara.

### Asteazkena 13

- 10ak arte: Ruiz, Maala.
- Egunez eta gauez: Camacho, Bergara.

### Osteguna 14

- 10ak arte: Morales, San Andres.
- Egunez eta gauez: Puy, Bergara.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit...	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

### Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
---------	----------

### DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

### Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
	12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------	----------

### Udaitzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

### Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------	----------

### Suhiltzailak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaille burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

### Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

### Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

### Kontsumitzailearendako informazioa

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

### Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
-----------	----------

## ZORTEDUNAK GARA!

**Z**eintzuk? Superstizioaren arabera noizbat txakur mokordo bat zapaldu dugun guztiok, eta zoritxarrez herri honetan asko gara. Nahikoa da espaloietan osatzen diren kaka arrastoak ikustea, oinezkoen batek bat zapaldu eta zer egin jakin barik zapatapea zoruaren kontra igurtzen duenean, benetako zikinkeria sortuz.

Idatzi hau ez da "pipican" edo antzerako zerbaiten erabilera eskatzeko, txakur jabe-ei gutxiengo bat eskatzea litzateke: euren txakurrak espaloietan kaka egitea ezinezkoa bada, plastikozko poltsa bat eramateko, txakurrak eginbeharrak bukatzen dituenean jaso eta ondo itxi ondoren zakarretan utz ditzatzen. Izan ere, sarritan espaloiak oztopo lasterketak dirudi. Detailea aurrez esker-tuz, agur bat.

(Erredakzioan itzulia)

Merche Exposito

## DOMU SANTU EGUNA

**A**zaroaren 2an egunero bezala egunkaria irakurri nuen, bereziki Arrasateko karta.

Hor nire kuriositatea, panteoioak kotxeak balira bezala salgai zeudela irakurtzean.

Kuriositateari jarraituz banindoa Arrasateko kanposantu berria ikusi eta eza-gutzera.

Hor nire kezka: badakit kanposantu bat ezin dela izan toki algaratsua. Koka-tuta, ezin hobe.

Baina nola liteke horrelako kanposantu bat egitea XX. mendearen bukaeran?

Beno, zerbait horren ondorioz gizaki guztiok berdintzen gaituena heriotza da.

Nola egin liteke horrelako kanposantu berri bat?

Zein tristura nire barrenean. Eta hil ondoren ere desberdintasunak gizakion artean?

Zein tamalgarria, kanposantu berria ikusi ondoren, huts eginda gelditu naiz...

Eta kanposantua ikusi ondoren, krematoriorik zergatik ez?

Pili Urizar Azkarate

## ERTZANTZA EUSKALDUNA

**O**rain dela denbora asko kezkatzen nauen arazo bati buruz hitzegin nahi nuke. Izan ere, nire kontzientzia ez dago lasai zuei honako hau komentatu gabe.

Beti izan ditut liskarrak ertzainak direla medio, liskarrak izatera heldu ez diren liskarrak, beti "erruduna" euskara izan delarik. Egoenezia sortzen dit "txapel gorri" batekin nire hizkuntzan berba ezin egiteak.

Hainbat eta hainbat bider haserretzera ere heldu izan naiz. Gaur goizean esaterako, zazpi ertzain zebiltzan erdera hutsean. Ahalegindu naizen arren ezin izan dut nire egonezian jasan eta hurbildu egin natzaie. Ea euska-

raz ba ote zekiten galdetu diet baina inork ez du nire galdetara ulertu. Niri neuri lotsagarria iruditu zait, baina hau hasiera besterik ez da izan. Beranduxeago neuk ere erderara jo behar izan dut, eta hizketan genbiltzala, beraiek zera esan didate, "base minimo" bat eskatzen zaiela. Barregarria benetan: "base minimo" bat, eta ez dute ea euskaraz mintzatzeko gai diren ere ulertzen.

1996ko apirilak 9an, "El Diario Vasco" egunkarian bazioen euskalduntze plan berriak bere eragina izango zuela ertzantzarengan, Mari Karmen Garmendiak berak adierazi duenez. Orain bost urte antzerako zerbitu egin zen arren, ez omen zuen atarramenduonik izan. Ekarriko al du fruitu hoberik hurrengo honek? Hala espero behar, guztion onerako.

Ni neu ez naiz baikorregia eta, ekimen ofizial horrez gain, zera uste dut. Denak du bere irtenbidea, beharbada koordinakunderen bat edo bereziki lan horri egingo lioken talderen bat sortu behar litzateke gai honen inguruan. Momentuz hasiera bezala ertzainei beti lehen berba euskaraz egitea proposatuko nuke, beraiek ez baitute gure hizkuntza jakin behar dutenik ikusten.

Jon Lekunberri

## ARGAZKILARI BAT eta ILUSTRATZAILE BAT BEHAR DITUGU!

Astekari berria, behar berriak.

Argazki kamara behar bezala erabiltzen badakizu edo marrazkiak egitea gustoko baduzu, ARRASATE PRESSEK astean pare bat orduz zure beharra du. Guri sekulako mesedea egingo zeniguke eta horren truke zure lanak sinatuta argitaratuko genituzke aldizkarian.

Anima zaitetz eta dei egin 77 05 65 telefono zenbakira eta hitzegino dugu.

# Zer iruditzen zaizu kalean bideo kamarak jartzea?



**Jose Antonio Martin**  
Langilea  
(33 urte)

Ez nago oso ados. Jendea askeago ibiliko da bideo kamara barik.



**Julia Rey**  
Ikaslea  
(23 urte)

Istiluak egoten diren tokietan jartzea ondo iruditzen zait, baina besterik barik kalean jartzeak ez du zentsurik.



**Francisco Baena**  
Langabetua  
(30 urte)

Teorian gaizki iruditzen zait, horrekin ez da ezer konponduko eta. Bestalde, bigilatu egoteak ez dit grazia handirik egiten. Ezertarako balioko ez duen neurria izango dela uste dut.



**Virginia Gorosabel**  
Langilea  
(29 urte)

Egoki erabiltzen badituzte ondo egon daiteke. Arazoa dago gaizki erabiltzen dituztenean, adibidez, pertsonen bizitza pribatua zainrzen dutenean.



**Roberto Hernandez**  
Langilea  
(23 urte)

Ondo ez. Nire iritziz gure intimitatea hautsiko dute bideo kamarek.



**Txaro Navero**  
Etxekoandrea  
(35 urte)

Ez dago gaizki. Pertsona batzuk ez dute ezer egiten, baina delikuentzia moeta batzuk eragozteko balio dezakete bideo kamarek.



**Gotzon Arzellus**  
Langilea  
(23 urte)

Txarto. Ez litzaidake gus-tatuko kamara bat niri begira dagoela jakitea.



**Rosa Mari Hernandez**  
Langilea  
(35 urte)

Gaizki. Kaletik zoazela kamarek norbera zaintzea txarto iruditzen zait.



**Zure OPEL  
banatzailea  
ARRASATEN,  
zergatik joan  
urrunago?**

**OPEL**

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

USTEAK USTE

**Zezenak adarrak okerrak ditu**

**I**tto ez itto egon nintzen joan den astean. Neure onerako, barrez lehertzen egoteagatik etorri zitzaidan itto-larria. Izan ere, zer hobea Luis Del Olmo, Jose M<sup>a</sup> Garcia, Alfonso Ussia, J.J. Ramirez eta gainontzeko kuadrila koloreak gorritzerainoko erridukiloa ikusten egitea. Hauek bai kazetariak! Espainiako kazetaritzaren eta espainiartasunaren numero unoak, informazioa kontrastatzea eta egiaztatzea egunero jatearen aurretik jartzen duten pertsonaiak, zurrumurruei jaramonik egiten ez diotenak, datoak erabiltzen dituztenak, objetibotasunaren jarraitzailerik sutsuenak. Atera zituzten ondorioak ezin bestelakoak: **ETAk mehatxatua, tabakotara joan, emakumezko ile hori batekin, gaua etxetik kanpo pasatu... "ya está, bahiketa!"**. Hain dira profesionalak ustezko bahituaren beraren deiarri ere sinesgarritasunik ez diotela eskaintzen, "adar jotzea izan zitekeen txikito!". Adar jotzea, baina, itxuraz adar kontua izan eta aurreko denek elkarri adarretatik tiraka bukatu zuten. Bestearen adar kontuen berri, berriz, zezen larruaren bazter izkutuean ere ezagun. Ez nintzateke bere azalean egongo.

Beñardo Kortabarria



**Irudikeria ote?**

Jaione Guezmes

**U**rteak dira dispartzioaren ilegaltasuna salatzen ari garela, zigortutako gure senideekiko dituen eragin izugarriak; heriotza, mediku zaintzarik eza, jipoiak, isolamendua...

Hori guztia ahaztu barik guretzat, senide bezala, itto-larri ekonomikoak, bidaia luzeak, maitasun ezak etabarrak dakartena.

Gauzak nahasten ditugula esan digute, gezurretan ibiltzen garela, gure familiarak politikoki erabiltzen ditugula, zuzenduta gaudela, katekizata... eta gauerdian etorritako amets bat balitz bezala, ikusten dugu urte-etan dispartzioa armez defenditu duten horiek, gaur, eta inungo lotsa barik, salatu egiten dutela. Hainbeste min ikusi eta horren aurrean geldirik egon direnak, orain inungo muga

barik salatzen dute. Eta galdetzen dut: Zer gertatu da Euskal Herrian herri hone-tako gizon eta emakumeen sufrimenduaren kontura politikoki bizi diren horiek horrelako jauzia egin dezaten? Nire erantzuna argia da. Lehenengoz, gure errepre-saliatuaren gogortasunak eta zintzotasunak, bere duintasun osoz, bertan behera bota dituzte boterearen ideala besterik ez duten adimenen pre-bisio guztiak. Bigarrenez, izen gabeko milaka lagun

elkartasunak, urtez urte lagundu eta babesa eman dutenak, errepresioa jasanez gu guztiokin batera. Makina geldiezina, intolerantzia hor-ma guztiak apurtu dituena. Eta hirugarrenez talde horiek guztiak, alderdi poli-tikoak (gutxi), sindikatoak, elkarteak... iritzi egoera bat sortarazi dutenak, betikoak, gutxienez erreflexioa egin zezaten beraien jarreraz.

Dena den, gogorazi behar da hainbeste jarrera hartze egonda, gure preso guztiak, bat izan ezik, Euskal Herriatik urrun daudela, eta sekula baino beharrezkoagoa dela legea betetzea eta Euskal Herrian berrelkartzea. Zuen esku dago une hau irudikeria huts bat ez izatea.

(Erredakzioan itzulia)

Jaione Guezmes, SENIDEAKeko partaidea da

**“  
Gure errepre-saliatuaren  
gogortasunak eta  
zintzotasunak bertan  
behera bota dituzte  
boterearen ideala  
”**

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99

**OPIL OKINDEGIA**  
**DONIBANE-PAPVR**  
**GOZOTEGIA**  
Inazio Zuloaga, 2 • Tfnoa: 79 80 50 • ARRASATE

*Hurbildu zaituz eta dastatu gure ozi eta pastel bereziak!*



astea bi hitzetan

■ **Gelak eta etxeak su hartu**

Joan den ostiral arratsaldean, San Frantzisko Xabier ikastolak Olarten duen eraikineko gela bat erre egin zen. Suhiltzaileak etorri arren, umeez kirola egin zezaten erabiltzen zen gela kiskalita geratu zen. Zapatuan, bestalde, Arrasate Pasealekuko etxe batek su hartu zuen. Etxe hori hutsik zegoen, eta uste denez sua etxe horretan ibiltzen ziren gazte batzuk eragin zuten.

■ **Domu Santu egun jendetsua**

Urtero moduan, asko eta asko izan ziren hildako familiarterko eta lagunuen orimenez herriko bi kanposantuetara hurbildu zirenak.

Beti moduan lora sorta eskuetan joan ziren gehienak bi kanposantuak kolorez jantziz. Joan den ostegun gauean bestalde, ezezagun batzuk kalteak eragin zituzten Aldaiko kanposantuan. Ezezagun horiek hilari eta lehio batzuk apurtu zituzten.

■ **Desgaitasuna dutenak kirola egitera**

Desgaitasunen bat duten ikasleak kirola egitera bultzatu nahi dituen programaren berri eman zuten asteartean Mankomunitatean. Oskar Carrascalek eta Angel Zeziagak, programaren egileek, eskualdean desgaitasunen bat duten 6 eta 16 urte bitarteko 90 ikasle daude-

la esan zuten. Aurten burutu izan dira programan jasotzen diren ekintza batzuk, eta aurrera begira beste batzuk antolatzeke asmoa azaldu zuten. Horrez gain, desgaitasunen bat duten gipuzkoarrei ere kirola egiteko aukera eman nahi zaienez, Diputazioa programa horretan oso interesatuta dagoela esan zuten.

■ **Komite Internazionalisten erakusketa**

Kubari buruz erakusketak ireki zuten astelehenean Komite Internazionalistak. Argazkien bidez, Kubak bizi duen egoeraren berri ematen da, eta idatzien bidez, EEBBk ezarri berri duten Helms Burton legea zer den azaltzen da.



«Hitzaro» programa eta Mondragon unibertsitatea

Hitzaroko arduradunek gaia azaldu zuten eran eta Eskola Politeknikoko Zuzendari Jaunak esandakoaren arabera, euskalduntze prozesu osoan sartuta dagoen irudia eman zitzaigun. Gauza bat da ordea irudia eta beste bat errealtatea. (...) Teknilaria, kasu honetan Injinerua, espezializazio-arloan bihurtzen da teknikari eta ahal duela behintzat hartan aritzen da gero lanean. Sistema horrekin, Arrasaten matrikulatzen den ikaslegoaren gehiengo euskalduna, teknikari erdaldun moduan irteten da Eskolatik eta gero ez dago erdaraz teknikatutako ikasle euskaldunen belaunaldi oso hori birmoldatzen lezakeen amaren semerik. Horixe da gure egungo trajeriaren ezaugarrietako bat: umetan euskaraz eskolatutakoak profesionalki erdaldun bilakatzea.

Oraindik ez da abiarazi Arrasaten Injinerutza euskaraz burutzeko talderik eta espezialitaterik, are gutxiago Injinerutza, nagusiki eta funtsean euskaraz ikasteko planik. Beraz, lore gutxiago lan gehiago eta egiak garbiago. Euskaldunok hori noiz gertatuko zain gaude”.

■ **ANDONI SARRIEGI**

(Euskaldunon Egunkaria)  
1996ko urriaren 31n



■ **JOXE MARI PAGOAGARI ONGI ETORRIA**

Azken hilabeteak Carabanchelgo kartzelan pasa ondoren, joan den larunbatean aske utzi zuten J. M. Pagoaga. Arrasatearrak 22 urte eman ditu kanpoan, eta tarte horretan hainbat tokitan egon da deportatuta. Aurtengo ekainean beste deportatu batzuekin Baionara itzuli zen.

**ITSASKI**

**ARRANDEGIA**

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE

Tfnoa: 79 98 94

**GOROSTI**  
Jatetxea

MENUA • PLATER KONBINATUAK • KARTA  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)

Arimazuri Plaza • Tfnoa: 77 06 07 • ARRASATE

**BAZAR**  
TOKI ON

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

Erdiko Kale, 7  
Tfnoa: 79 91 64 • ARRASATE

## Correos-eko langileen etenaldia

Asteazken goizean Arrasateko Correos-eko langileek ordu batez ez zuten lanik egin. Etenaldi horren helburua, gobernu zentralak onartu nahi dituen neurrien aurka azaltzea izan zen. Soldatak izoztearen kontra eta lanpostu publikoak ez eratzearen kontra azaldu ziren Correos-eko langileak. Horrez gain, beharrezkoak diren zerbitzuak gobernuak pribatizatu egin nahi dituela ohartarazi zuten langileek.

### Jaiotzak

- Irati Lopez Agudo. Urriaren 30ean.
- Nagore Etxebarria Altuna. 31n.

### Ezkontzak

- Jon Koldo Lasagabaster Garcia-Etxabe eta Miren Agurtzane Garai Kortabarria. Urriaren 31n. Zibilez.
- Angel Manuel Gallego Rayo eta Maria Luisa Sopo Mertzan. Azaroaren 2an. Elizatik.

### Hildakoak

- Maria Berezibar Otadui. Urriaren 31n. 81 urte.
- Angel Balanzategi Arizmendi. Azaroaren 1ean. 74 urte.
- Dominica Ormaetxea Barandiaran. 3an. 70 urte.

JOSE RAMON ACOSTA, INEM Gipuzkoako zuzendari ordea

## “Baldintzak bete barik INEM ez da Arrasatera bueltatuko”

**Uda osterako INEM Arrasatera bueltatuko zela uste bazen ere, itzulera atzeratzen ari da. Geltoki zaharreko eraikina oraindik ez dago gertu, eta bitartean, INEM ez da etorriko. Jose Ramon Acostari, Gipuzkoako INEMeko zuzendari ordeari, galdetu diogu zer dela eta atzerapena.**

**- Noizko INEM Arrasaten?**

- Hori Udalari galdetu eta ez niri. Kontratua sinatu barik dago, eta hori ezin da egin plenoak onartu zituen baldintza edo preskripzio tekniko guztiak betetzen ez diren bitartean. Pleguen klausulan idatzita dator baldintzak bete beharko direla kontratua sinatzeko.

**- Zein baldintza falta dira?**

- Gasa sartzea, eta uste dut orain horretan hasi direla, eta bestetik, itxiera perimetrala egitea.

**- Itxiera perimetrala nola egin daiteke?**

- Eztabaida daiteke itxiera aipatzean zer esan nahi dugun, baina hori Udalare-

kin hitzegin beharko dugu.


**- Eta ez duzue hitzegin?**

- Ez, eta gainera, inoiz ez dira guregana hurbildu horri buruz berba egiteko. Gure iritzia emango dugu Arrasateko Udalak hala eskatzen digunean. Nik gauza bat esan dezaket, behin kontratua sinatuta hamabost egunetan hori egon gaitzkeela. Instalakuntza informatikoa egiteko aurrekontua

badugu eta altzari berriak erosituta ditugu.

**- Gauzak zelan dauden ikusita, ez dirudi datorren urtea baino lehenago etorriko zaretenik?**

- Ez dut datarik jartzen, baina teoriarik hilabete epea zuten Udalak baldintzak betetzeko, eta ez du hori egin. Guk Arrasatera joan gura dugu, eta ez da gure errua dagoeneko hori ez egotea.



Geltoki zaharrean ari dira INEMendako eraikina prestatzen.

**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 • ARRASATE

**Lore**  
Lurrindegia


Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 52 50

# Arrasateko Udalak Ejerzitoarekin kolaboratu behar duela erabaki du Auzitegi Nagusiak

HB, EA eta EUEren aldeko botoekin 1994ko martxoan udal plenoak hartutako erabakia ez legezkoa dela erabaki du E.H.ko Auzitegi Nagusiak. Auzitegiak emandako epaiaren arabera, Udalak soldaduzkara joan behar duten gazte arrasatearren izenak eman behar ditu, eta ez legezkoa da intsumisoei egiten zaizkien epaiketen kostua Udalak ordaintzea. Orain arte milioi bat pezeta gastatu du Udalak epaiketak ordaintzen. Plenoak onartutako hirugarren puntua, berriz, Ordezko Zerbitzu

Sozialeko postuak ez onartzea, Udalak erabaki dezakeen zerbaite dela erabaki du Auzitegiak.

Auzitegiaren epaiaren kontra, Auzitegi Gorenean errekurtsoa jartzea erabaki du gobernu taldeak, HBk eta EBak. Xabier Zubizarretaren berbetan, "Udal batek ez du ejerzitoarekin kolaboratu beharrik. Espainiako legeak Udalek ejerzitoarekin harremanetan egon behar dutela aurreikusten du, soldaduzkara joan behar duten gazteen izenak emanez, baina guk ez dugu horrelako partehartzerik onartzen".



Maiatzean alkatea atxilotu zuten ejerzitoarekin ez kolaboratzearen.

## Udalak Diputazioari

San Juan de Dios Ospital Psikiatrikoak erabiltzen duen goi pasabidea botatzea eta berria eraikitzea eskatu dio Udalak Diputazioari. Udalaren arabera, idatzita dagoen proiektuan pasabidea botako dela esaten da.

## Beste iharduera batzuetarako obrak geratzea eskatu Eroskiri

Hiper Eroskiaren ondoan beste iharduera batzuetarako obrak baimen barik egiten ari direla eta, obra horiek geratzea eskatu dio Udalak Eroskiri. Udalaren esanetan, Eroskik eskatu zuen Hiperra eraikitzeke baimena baina ez gale-

ria komertzialak eraikitzeke, eta horregatik, obrekin jarraitu nahi badu baimena eskatu behar duela adierazi dio.

Hiperra eraikitzeke obrak oso aurreratuta doaz, eta pareko errepidea ere konpontzen ari dira.

## Arratoiendako pozoia

Orain arte erabiltzen den pozoiarekin arratoiak ez direla hiltzen eta, beste pozoia bat erostea erabaki du Udalak. 249.000. pezeta gastatuko du horretan. Herriko toki batzutan arratoiak daudelako erosi-ko da pozoia.



**DANKA**  
multimedia

*Komunikazioan kontzeptu Berria*



**CD-ROM**

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Liburu elektronikoak



**INTERNET**

- Diseinua Web orrietan
- Web korporatiboa
- Produktoen Web-a
- Web-en kokapena


"Enpresan Multimedia  
Aplikatzeko, oinarrizko Gida"  
DOHAINIK. ESKA EZAZU !!

Loramendi, 4 - SAIOLAN Zentruan -  
20.500 **ARRASATE** - Gipuzkoa -  
Tels.: 943 - 770500 / 790211  
Fax.: 943 - 795701  
Web: [www.danka.es](http://www.danka.es)  
e - mail: [danka@danka.es](mailto:danka@danka.es)

**Gure bezeroak:**

DANONA, TAVEX ALGODONERA, FAGOR,  
ZTB, LANA, CAJA LABORAL, eta abar...

DANKA multimedia INTERNET-ean dago ([www.danka.es](http://www.danka.es)). Eta zure enpresa ?



## Bada ur-biltegi berriaren beharrik?

**B**ai, guztiz. Ikusi egin beharra dago nola geunden eta gaur egungo Kontzezinoko depositoarekin Arrasatek 5 orduko autonomia besterik ez du; berriarekin, 24 orduko autonomia izatera pasatzen gara. Urkulutik Arrasatera arteko tutuerian edo Urkulun bertan zerbait gertatuko balitz eta ura moztu beharra balego, 24 ordurako ura badugu, normal erabiltzeko moduan. Balarazioa alde horretatik oso garbia da, askoz ere hobea izango da geroko egoera. Normalean parametro estandarrak depositoetan 24 eta 48 ordu bitarteko autonomia izaten da, normaltasun horretatik kanpo egon gara orain arte. Zorionez ez da arazorik egon, baina egoteko aukera egon da denbora luzean eta normaltasunean sartuko gara.

Juan Antonio Urdangarin

# Biltegi berriak hirukoiztu egingo du ura gordetzeko gaitasuna


Zaldispeko ur-biltegi berria abendurako bukatzea espero zen hasiera batean, baina atzerapen txiki bat medio urtarrila/otsaila epera itxaron beharko da obra bukatuta ikusteko. Behin lana bukatzen denean, herrian ura biltzeko gaitasuna hiru bider terdi handiagoa izango da. Izan ere, oraingo Kontzezinoko ur-biltegiaren gaitasuna 2.766 metro kubikoa da; berriarena, berriz, 6.850koa izango da, bi zatitan banatuta. Bi ur-biltegien artean, beraz, 9.610 metro kubiko gorde ahal izango dute.

Martxoan hasi ziren ur-

biltegi berria eraikitzeko lanak: zulaketa egin, mendia tinkotu behera etorri ez dadin, eta hormak eraiki. Hemendik eta Gabonak artean estalketa lanak egingo dira, beranduago tutueria jarri, eta bukatzeko ingurua txukundu. Ikusten denez, biltegia eraikitzeko lanik potoloena burututa dago, gutxi gorabehera heren bat faltako litzateke.

178 milioiko aurrekontua dauka ur-biltegi berria eraikitzeko lanak. Aipatutako diru-kopuruaren erdia Diputazioak jartzen du eta beste erdia ur-kontorsioak. Diputazioko Obra Hidrau-

liko eta Ingurugiro Departamenduan adierazitakoaren arabera, ur-biltegi berria eraikitzeak neurri handi batean ziurtatzen du ur-zerbitzua Arrasaten, kontsumoak azken urteetan ez duela gora egin, razionamendua gertatu ei da arlo horretan. Gauzak aldatuko balira, bada orain eraikitzen ari den ur-biltegiaren ondorioz, bigarren biltegi bat eraikitzeak aukera. Proiektu finikorik ez da egin, balizko ur-biltegi horren inguruan, baina noizbait eraikiko balitz, Arrasatek 16.016 metro kubiko ur gordetzeko gaitasuna izango luke.



Otsailerako bukatuta egongo ei dira Arrasateko ur-biltegi berria eraikitzeko lanak.



**Erakusketa eta almagena:**  
Kale Txiki, 3 - behea  
Tfnoa: 77 11 20  
Faxa: 77 11 20  
ARRASATE

## Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehioak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak  
Eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

## BAKAILO ETXEA




- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tfnoa. 79 93 07

**Etxe Aundi**  
*Hotela\*\* Jatetxea*



Torrauzo, 9  
 Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
 OÑATI




*Gaur ez bada,  
 bihar  
 ezkonduko  
 zara...  
 Etxe Aundin  
 zure zain  
 gaituzu.*



LEIHO ISOLATZAILEAK




**Bezeroarekin zerbitzu zuzena**



**Kalitatezko muntaiak**

**Irtenbide  
 aproposena!**




**(I+D) Ikerketa eta garapena**



**Fabrika Zentrala**

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.  
 Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



EPELDE



A ze bikote ederra Juan Ignacio Aranburuzabalak eta Nieves Velezek osatu berri dutena! Uztailaren 27an esan zioten elkarri bizitza osorako maite eta zainduko zutela eta eraztunak jarri ondoren, Bangkok, Singapur eta Balira joan ziren hartu berri zuten konpromezua ospatzera. Honez gero bueltan izango dira eta ziurren Orientean hartutako koloretzua joanda izango dute, ez ordea elkarrenganako maitasuna... Zorionak bikote!

## BIHOTZ MAITEMINDUAK



## ELIZA ESKALATZEN?

Egunero Uribarriko elizaren kanpantorrera igotzen dira Txingu, Joxe eta Elias. Izan ere eurek kanpandorrea konpondu eta gurutze berria jarriko dute, eta horrelakoetarako ezinbestekoa da gruari edo bestela eskalatzailerei deitzea. Kasu honetan soketatik zintzilikatuta lan egiten duten hiru eskalatzailerei deitu diete. Euren esanetan, paraje politak ikusten dira kanpandorretik baina horretarako 29 metrotik zintzilik jarri beharra dago. Nor ausartzen da?



**NAHIKOA LAN EGIN ONDOREN...** Bai janari mordo prestatu behar izan zutena 155 ahogoseti hautentzat! Fagorren 95eko maiatzetik 96ko apirilera bitartean jubilatutako 87 lagunek euren senar-emazteak eraman zituzten bazkaltzera Zelai Zabal jatetxera eta pentsa, horrenbeste jendekin ezkontza baten antza gehiago zuen hark! Bazkaldu eta gero dantzan aritu ziren... nork esan zuen urteak ez direla alperrik pasatzen?

**...ORAIN JAI!**

### S. CARRASCAL S.L.

#### Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tfnoa/Faxa: 79 01 82

### ARGI PLASTIC

- PVC ETA ALUMINIOAN EGINDAKO LEIHOAK, MANPARAK...
- LANTEGITIK ZURE ETXERA ZUZENEAN

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!

Tailerra eta bulegoa:  
Zigarrola, 1-8 pabiloia • Tfnoa: 77 11 30 • ARRASATE



*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 81 82



## ZORIONAK BIKOTE!

13an ospatu zuen ezkontza. David Agirre eta Ana Heriz EEBBetara joan ziren ezkonbidaian. Biak bueltan dira dagoeneko baina hori bai, sekula ez dute ahaztuko argazkiko eguna.


Atxabalta-ko bikote honek uztailaren



FOTO IMAGEN

## DIABOLOEN KALENTURA

“Diabolo”enak inbasioa dirudi. Nork ez ditu segundutxo batzuk igaro neska-mutikoek tramankulu horiekin egiten dituztenak ahozabalik ikusten? Ezkerretara, eskumatarara... eta gora! Sekulako altuerara botatzen dituzte diaboloak eta goitik behera datozenean ez dute ez



hutsegiten, sokarra zuzen zuzenean!

Zelako deabrutxoak diaboloak manejatzen!

## IZENA

### Libe Olabarrieta

25 urteko arrasatearra, Udalako ingurugiro Eskolako beka-dun berria da. Bekaren bidez, ingurugiro gaietan prestatzeko aukera izango du. Historia eta geografian lizentziatua da Libe.



## ZENBAKIA

### 1.150

bazkide egin ditu *Euskalanek*. Elkarteak aurkeztu aurreko bi astetan egindako kanpainaren ondorioa da aipatutako bazkide-kopurua. Guztira 57 lantegitan burutu zen bazkide kanpaina.

## DATA

### 1989ko azaroak 8

Maxi Eroski inauguratu zen. Denda berria zabaltzearen ondorioz arrasatearrei eta bailarako askori erosketak beste era batean egiteko aukera eskaini zitzairen, baina denda dezente ere itxi ziren. Orain Hiperra inauguratzeaz dago.

**M**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07



Alkoholarekin arazoak daukazazu? Agian,  
“Alkoholiko Anonimoek”  
lagundu ahal dizute!!

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tfnoa: 61 93 38

**GORKA**  
ILEPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

DIESELAREN OLINPOA  
380.000  
PTAKO. DESKONTUA




Citroën

***Chapime Tailerrak***

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tfnoa: 79 06 57 / 79 45 22 / 77 08 67

AX. ZX ETA XANTIA DIESELARI EZARTZEKO MODUKO AURREZKIA. GEHITU EZINEZKO PROMOZIOA ETA STOCKEAN DAUDEN AUTOENDAKO BALIAGARRIA.





Ignacio Carmonak orain dela bederatzti urte eraiki zuen bere txabola Erguinen.

# TXABOLAK

## Kanpotik zatar barrutik bizirik

Ez da bista gehiegi nekatu behar burdin xafla eta egurrez egindako txabola eta ortuxo bat aurkitzeko. Arrasaten mordo badira, guztiak erdigunetik urrun samar dauden zelai, solo eta pinadietan eraikiak. Jendearen ustez ez dira

politik eta herriari itxura zatarra ematen diote. Txabola gehienak gainera, illegalitate hutsean daude eraikita, terreno partikularretan baina Udalaren baitatik gabe. Arazoa txabola hauek oso azkar hasten direna da eta Udalak ezin

ditu kontrolatu. Txabolen errolda egina dago: 463 txabola zenbatu ziren baina kopuru hau egunez egun alda daiteke. Arazoa handia bihurtu da baina egia da ere, txabolak eta ortuak jende askoren aisialdi direla.

**T**xabolak zatarrak, illegalak eta askotan, baldintza higienikorik gabe bizi diren animaliaz beteta daude baina jende asko eta askoren denborapasa eta aisialdi dira ere. Gezurra dirudi, baina txabola itsu-

si eta ortu horien artean, bizitza berezi eta aparte bat gauzatzen da egunero egunero. Txabolek herriaren erdigunetik urrun dagoen mundu bitxi bat sortu dute, akaso mundu itsusi baina oso bizi bat. Xafla, erdoildutako burdin, koltxoi, ate

zahar, tendadore eta bidoi artean komunitate txikiak sortu dira eta bertako guztiek elkar ezagutzen dute: haziak elkartrukatzen dituzte, elkarri laguntzen diote, kontutxoak esaten dituzte... euren dako, txabola eta ortuxoa eguneroko erruti-

na industrialetik ihes egin eta lasaitasunean ordu batzuk igarotzeko aitzaki dira.

Noiz edo noiz, zeozer ospatu nahi dutenean, txabolan hazitako untxia hil eta familian jaten dute, txabola barruan egoten diren oiloen arrautzak

berri, ia egunero. Hau esatean, berehala planteatu beharreko galdera txabolen higie-nearen ingurukoa da. Egia esan, usain onik ez dute, ez bakarrik animaliak dituztela-ko, baita bidoieta pilatutako ura usteldu egiten zaielako. Txaboletako lagunak berri haserretu egiten dira higie-na zalantzan jartzerakoan.

**“HERRIA TXABOLAK BAINO ITSUSIAGO DA”**

San Josepeko harrobiaren ondoan, bada txabola gune bat. Ez da erraza haraino hel-tzea, bide garbirik ere ez dago. Nahiko toki iluna da, zuhaitz eta pinuean artetik ez da argi gehiegi sartzen. Ikus daiteke-ena ez da oso polita: txabolak bata bestearen alboan eraiki-ta, 5, 10, 20... ezin jakin zen-bat. Txabola bakoitzak zenbaki bat du margotuta: Udalak txab-olen zentsoa egin zueneko marka da hori. Emakume bat agertu da. Gure presentziare-kin arduratuta dirudi, Arrasa-te Presseko kazetaria eta argaz-killaria garelako esateak ez diru-di konfidantza gehiegi ematen dionik. Beldurra nondik dator-kion antzeman daiteke: bere eta bere lagun txabolak kentzera gatozen galdetu ote dio bere buruari? Badaki lurzoru hori ez dela berea, baina konkretu-ki norena den ere ez daki esa-ten, “apaiz batena ei da” esa-ten digu. Azkenean animatu da hitzegitera eta bere txabola erakutsi nahi digu. Txabola txi-kia da, bi metro karratukoa. Barruan bi oilo, untxi bat eta untxikumeak ditu. Alboan ortua, eta bertan azak landa-tuta.

**“Hemen denok gara laga-  
ak egiten ditugu. Hau ez da zar-  
rraren diztira daukate!” -Al**



San Josepeko kanteraren ondoan dagoen txabola gunea. Bertan txakurra, oiloak, ahuntzak eta untxiak gordetzen dira.

Txabolek herriari itxura zatarra ematen diotela esatean, haserretu egin da emakumea: “Zatarrak? Bai, zera! Herria askoz zatarragoa da, ez dago ezer Arrasaten! Hemen berri-z, sekulako bizitasuna egoten da!

Denok gara lagunak eta merien-datxoak egiten ditugu. Hau ez da zatarra... begira nire azak: zilarraren diztira daukate!”.

Heldu zaigun zurrumurru baten berri ematen diogu, antza denez, San Josepeko txa-

bola batean, familia bat bizi iza-ten egon zela. Horren aurrean, ez daki zer esan: “Ez nago ziur baina bi hilabetetan hemen dagoen zementuzko txabola batean familia bat bizi izaten egon zela uste dut. Dena dela,

**“Edozein egunetan hemendik joateko esan-  
go digute eta nork emango lidake  
txabola txukuntzen gastatutako dirua?”**

gak eta meriendatxo-

zarra... begira nire azak: zila-

Andena G.-



txabola moduan klasifikatuta egon arren, etxe hori txabola bat baino gehiago da: lehoiak ditu eta bentilazio ona. Hor lasai lasai bizi daiteke familia bat, baldintza onetan dago". Bere ustez baldintza onetan dagoen zementozko txabolara eramaten gaitu berak esandakoa egia dela ikus dezagun baina gure inpresioa bestelakoa da.

**DIRURIK GASTATZEKO ASMORIK EZ**

Uribarriko etxeen gainean beste txabola gune bat dago. Lursail hori "Luisa" izeneko emakume batena ei da baina orain dela urte batzuk ez die hango txaboletako lagunei lur zatien alokairuagatik ezer kobratzen, jadanik ez da emakume hori handik pasatzen, ez dakite non dagoen.

Ignacio Carmonak orain dela 8 edo 9 urtetik du bere txa-

bola eta ortutxo. Uribarriko etxeak egiten ari zirenean soberan geratzen zen materialarekin eraiki zuen eta esaten duenez, lan asko eman zion. Ortuak porruak, letxuak, tipulak, tomateak eta sarbak ditu eta dena etxerako da. Egutero joaten da bere txabolatxora. Txoko hori berarentzat oso berezia dela onartzen du. Dena dela, argi dauka edozein egunetan bertatik bota ahal izango dutela, lurra ez da berea eta. Txabolak estetikoki zatarrak direla badaki, baina ez dago prest txukundu eta margotzen dirurik gastatzeko: "Zertarako? Edozein egunetan hemendik joateko esango digute eta nork emango lidake txabolan gatatutako dirua?".

Bere txabolaren gainean beste bat dago, Aquilinorena. Gizon honek 77 urte ditu eta duela 25 eraiki zuen berea. Ia

egun osoa pasatzen du bertan, gaixo dago eta medikuek esan diotenez, ez zaio etxean egotea komeni. Aquilinok ere onartzen du txabolek duten itxura zatarra baina bere ustez txabolen eztabaidaren jatorria ez da hauen itxura: "Jendeak ez du nekazaritzarekin zerikusia duen ezer onartu nahi, primitiboa dela uste du. Ni 1947an etorri nintzen Euskal Herrira Avilatik eta orduan baserri pila bat zegoen. Orain oso gutxi geratzen dira eta horregatik uste dut lurraren langintzarekin zerikusia duen guztiak traba egiten duela". Aquilinok 11 oilo eta 4 untxi ditu txabolan. Gabonetan hauek hil eta semeen artean jaten dituzte.

Pertsona hauek guztiak lotura berezi bat sentitzen dute euren txabola eta ortutxoarekiko eta jakina, ez die txabola guneei beste guztiak ikusten dizkieten trabak ikusten. Baina onartu ere onartzen dute edozein egunetan eskabadora batek horrenbeste urtetan euren txokoa izan dena bertan behera bota dezakeela. ■

Maidier Egües

*Udala: "Txabolak ez legezkoak dira baimenik gabe eraikita daudelako"*

Udaleko Hirigintza sailaren esanetan, Arrasaten dagoen txabola eta ortu piloak arazo handia bihurtu da. Asko ugaltu dira eta jadanik, orain urte batzuk egindako txabolen zentsoa ez da oso fidagarria.

Hirigintzaren esanetan, txabolek oso itxura antiestetikoa ematen diote herriari, errepidetik ikusi egiten baitira. Baina txabolek sortu duten arazoa ez dator hauek ematen duten itxuragatik, beste arrazoi

batzuetatik baizik. Alde batetik txabola hauen ilegalitatea dago. Txabolak ilegalak dira Udalaren baimenik gabe eraikita daudelako. Gainera, berez, xaflaz eta egurrez egindako txabolak guztiz debekatu daude, hau da, zementu edo material gogorrago batez egindakoak izan behar dute legalak izan daitezen.

Bestalde, txabola guztiak ez dira ortuko lanabesak gordetzeko erabiltzen, badira barruan oiloak,

untxiak, txakurrak, txerriak edota ahuntzak dituztenak. Honek higiene eza dakar.

Udalaren esanetan, arazoa benetan larria da baina jakin badakite, eta gainera onartuta dago txabola guztiak kenduko dituztela. Argi ez dagoena, noiz kenduko diren. Hirigintzak dioenez, ez da erabaki erraza, izan ere, ekintza hori gaizki hartua izan daiteke, beraz, arazoa txabolen demolizioaren gauzapena nola egin da. ■

Ignacio Carmona-

Mondra taldeko azken fitxaketa

## JUAN L. ARANBURUZABALA

**"Azken aldian jarraitzeko zalantzak izan ditut"**

**- Zer espero duzu egitea aurten?**

- Ez dakit, oraindik ez dut ezer asko egin taldearekin eta nik ahal dudana egingo dut azkenean sei lehenengo-  
en artean egoteko. Azkeneko 5/6 partiduetan erabakiko da guztia eta guk hor egon behar dugu.

**- Noiz hasiko zara jokatzeko?**


- Entrenatzailearekin hitzegin dut, eta uste dut 20/25 egunetan hasteko moduan egongo naizela, bost hilabete daramatzat ia ezer egin barik eta.

**- Zergatik ez duzu aurreboraldirik egiten?**


- Egia esan azken aldean zalantza handiak izan ditut, jarraitu edo ez. Iaz ere antzera egon nintzen, lanean erreleboan nabil eta futbolarekin batera eramatea ez da erraza. Aurten ez nekien jokatu edo ez, zalantzetan nengoen, jarraitzeko presioa ere izan dut Mondraren aldetik eta orain-  
txe hartu dut erabakia, akordio batera iritsi ondoren.

**- Onena ei zara, baina baita nagiena ere...**

- Beno, gustoei buruz edozer gauza esan daiteke, bakoitzak du bere iritzia. Nire ustez hor egoten naizen jokalaria bat naiz, beteranoa... nagia? nahi eta nahiez adina bate-  
tik, lana bestetik... jendea aldatu egiten da. Gustatuko litzaidake jakitea hori diotenetatik zenbatek izango lukeen lana eta kirola batera egiteko umorea. Lehen hobeto ibiltzen nintzen, baina orain gero eta gogorragoa egiten zait.



## ESKUBALOIA Etxean gogor eutsi behar



Arrasate eta OAR Gracia taldeen arteko partidua ikusteko aukera izango dute larunbat arratsaldean 6etatik aurrera Iturripeko kiroldegira hurbiltzen direnek. Iaz baino askoz ere hobeto dabilta aurten eskubaloiko mutilek eta etxean sendotasuna erakutsi dute orain artean. Joe-  
ra horri eutsi beharko diote orain ere, baina lana ez da samurra izango Sabadellgo taldea sailkapenean arrasatearrak baino aurrerago dago eta.

## FUTBOLA Nagusi biak kanpoan



Mondrako talde nagusietako emakumezkoek zein gizonezkoek etxetik kanpo jokatu beharko dute asteburu honetan. Emakumezkoen taldea Bilboraino joango da, bertako taldearen aurka jokatzeko; gizonezkoen, berriz, Oleretara, Beraungo futbol zelaian Beti Ona taldeari aurre egiteko.

## ATLETISMOA Behobia-Donostia igandean



Bide bazterrean edo mendiko pistetan korrika ibiltzen diren hainbat lagunek denbora luzean itxaron duten zita izango dute igandean: Behobia-Donostia lasterketa. Arrasatearren partaidetzari buruzko datu zehatzik ez izan arren, seguru asko direla. Frogaren ikusgarritasuna kontuan har-

tuta gomendatzeko moduko plana, kostaldera bisita egin-  
ez igandean joan zaitezte Behobia-Donostia ikustera eta bertan parte hartzen duten arrasatearrak animatzera.

## SASKIBALOIA Lehen garaipenaren zain



Topikoa da, baina German Mongeren mutilek lehen garaipenaren beharra dute. Horretarako aukera izango dute igande honetan, arratsaldeko 5etatik aurrera Iturripeko kiroldegian jokatu-  
tako partiduan. Tarragonako Valls taldea izango dute aurrez aurre eta neurketak irabazteko modukoa dirudi. Ah! atzeritarraren berririk ez dago oraindik.

## RUGBYA Aurrea hartzeko aukera



Atletico San Sebastian taldearen aurkako partidua jokatu-  
ko dute arrasatearren larunbat arratsaldean 4etan Garagartzan. Sailkapenean arrasatearren aurrekoak dira donostiarrak, puntu bat gehiagoz. Argi dago larunbatekoa markagailuan postu bat aurretzeko aukera bikaina dela. Arrasatearren aldetik nobedade pare bat: Joseba Maidagan sendatu da azken partiduan hartutako kolpetik, eta aspaldiko partez, lesioa gainditu ondoren, Dabid Jauregik jokatzeko aukera izango du.

Beteranoei dagokienez, aipatzekoa da urtarrila alde-  
ra arte jai izango dutela; gazteek, berriz, Eibar taldearekin taldea erdizka osatu eta jokatzeko hasteko asmoa dute.


## ATLETISMOA

# Arrasate Atletiko taldea Gipuzkoako hirugarrena izaten jarraitzeko asmotan

**B**este hainbat taldek bezala, Arrasate Atletiko Taldekoek hasiera orain gutxi eman diote ikasturte berriari. Aurtun, 48 lagunek osatzen dute atleten taldea; iaz baino sei gehiagok. Aipagarria da gainera, etorritako atleta berrietatik 15 Athlonek bidalitakoak direla, infantil mailakoak.

Hamar urte pasa dira Arrasate Atletiko Taldea sortu zenetik, ordura arteko Juventud Deportiva Mondragon izena alde batera utziz. Denbora honetan egindako lana ez da ustela gertatu eta azken urteotan Arrasateko taldea Gipuzkoako hirugarrena izan da, Donostiako Atletico San Sebastian eta Real Sociedad taldeen ondoren. Baina jakina, aipatutako bi talde hauek beste aurrekontu batzuk, eta inportanteena dena, beste baliabide batzuk erabiltzeko aukera dute; arrasatearrenekin zerikusirik ez dutenak.

Orain dagoen tokiari eusteko asmoz ekin diote arrasatearrek aurtengo ikasturteari, baina horretarako derrigorrezkoa dute gainditu barik dagoen ikasgaia gainditzea: pertika jauziarena. Abiada lasterketetan, fondoan, erdi-fondoan, eta jaurtiketetan nola hala moldatzen dira arrasatearrak, baina jauzietan, batez ere pertika jauzian, dute hutsik nabarmenena. Hori dela eta Fernando Zufiria 14/15 urteko mutil gazteekin hasi da lanean orain, lasterketan abiada eta besoetan indarra har dezaten alde batetik, eta altuerari beldurra galtzeko bestetik. "Berez frogaz zail samarra



Pertika jauzia, aurrez landu beharreko kirola.

da, abiadura, indarra, ausardia eta teknika bateratzea eskatzen duelako. Oraindik ez gara benetan jauziak egiten hasi, aurre-

tik beldurra kendu behar zaie eta besoak indartzeko lana egin: sokan igo, pertikaz korrika egin, koltxonetara erortzen

ikasi... apurka apurka eraman nahi ditut, jauzia egitera beldurra kenduta hel daitezen".

Pertikarenaz gain, betiko arazoa dute Arrasate Atletiko Taldekoek, behar den moduan entrenatu ahal izateko tokirik eza. "Hautsezko pista zegoenean errazago hurbiltzen zitzaigun jendea, orain hemen ezer gutxi egin daiteke. Hori dela eta astero joan behar izaten dugu Elgoibarrera, Durangora edo Donostiara, ordu terdiko entrenamendua behintzat ganorazko pista batean egiteko, tartanaren gainean. Gazteei tartanezko pista zapaltzeak ilusioa egiten die". Hemen ez denean kanpoan, astean hiru bider entrenatzen dute atletismokoek, astearte, ostegun eta ostiraletan, eta baita asteburuan ere. Atletismoa egiten hasteko adin jakinik ez badago ere, 14/15 urteak ikusten ditu egokien Fernando Zufiriak. "Ordura arte umeek denetarik egin dezatela. Edozein modutan, hemen guztiak dute atea zabali eta badakite Iturripen aurkituko gaituztela". Nahi duenak badaki nora jo!

## Pistaz pista Itxaro Zubillaga

**K**iol eta kirolari gehienek atletismoa dute oinarrian, baita zigarroa erreaz pilotatxoari makilakada ematen dion golf jokalariek ere. Garrantzitsua izan behar luke, baina Olinpiadetan izan ezik, apenas egiten zaion kasurik. Ez du eta dirutza ikaragarri mugitzen, hori da arazoa.

Herrian bertan aurki daiteke esandakoaren parekotasunik. Pistarik ezean astero beste herri batzuetara takarran egitera joan

behar korrikalariek; pistarik ezean, egurrezko tramankulu bat hartu eta Garagartzako rugby zelaira jaurtiketak egiten dituztenek, Iturripen egingo balute dagoeneko disgustoren baten berri emanda izango genuke eta.

Argi dago atletek Arrasaten ez dutela merezi duten baliabiderik. Izan ere, Gipuzkoako hirugarrenak gara, eta hori ganorazko erreklamoa izan beharko litzateke Mojategiko atletismo pistaren proiektuari bultzada emateko. ■



## Zubiak ez dira zubi izaten Zaldibarko Txapelketan

**A** steak pasatu ahala girotu ohi da Zaldibarko Futbito Txapelketa. Lehen 4 ihardunaldiak bake santuan igaro baziren ere, azken honetan iritsi dira kanporatuak, borrokak... azkenean giroa sortzen dutenak. Ostiralean ez zen jairik egon Zaldibarren.

### Laburrak

#### ■ TXAPELKETAKO LEHEN KANPORATUA

Hilabete besterik ez da Zaldibarko futbito txapelketa hasi zela eta dagoeneko badago txapelketatik kanpo geratu den talde bat, A multzoko *Kaxi Ganamos*. Zergatik? *Potrosorriren* aurkako partidura ez azaltzeagatik. Araudiaren arabera, taldea txapelketatik kanpo, talde honen orain arteko emaitzak bere hortan geratzen dira, eta hemendik aurrerakoak 1 eta Okoak izango dira. Laister aspertzen dira batzuk!

#### ■ GOMENDATUTAKO NORGEHIAGOKAK

Asteburu honetako bi ihardunaldi azpimarratu behar: zapatuan eguerdiko hamabietan *Betrayer-Galartza kontenedoreak* Zaldibarren, eta igandean ordu eta toki berean *Txeyenex-Hirei*.

#### ■ PARTIDU ISTILUTSUA

*Totem-Leya* taldeen arteko partidua ikustera joan zirenek futbitoa baino zerbait gehiago ikusteko aukera izan zuten joan den asteburuan. Izan ere, une batez talde bietako bi jokalarik ukabilkadaka aritu ziren eta arbitroak kanporatu egin zituen. Arbitroaren erabakia nahikoa zela eta, ez zaie zigor gehiago ezarriko.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	
Betrayer	5	5	0	0	36	6	10
Irati STS	5	5	0	0	33	6	10
Abinagraus	5	5	0	0	33	12	10
Galartza kont.	5	4	0	1	28	10	8
Ojo Avisore	5	4	0	1	33	12	8
Pipwhis	5	4	0	1	24	14	8
Arrogoi taberna	5	4	0	1	17	18	8
Baneuko	5	3	1	1	12	12	7
Aurrera Bolie	5	3	0	2	26	16	6
DKB	5	2	2	1	16	10	6
Lorategi Potroak	5	2	1	2	20	16	5
Kriskibalda	5	2	1	2	15	14	5
Leya	5	2	0	3	11	20	4
Berango sukald.	5	1	1	3	18	23	3
Potosorri	5	1	1	3	8	14	3
Onaniereng	5	1	1	3	5	24	3
Totem	5	1	0	4	18	24	2
Me la pela	5	1	0	4	13	19	2
Alai gozokiak	5	1	0	4	9	33	2
Viboras	5	0	0	5	11	23	0
Kaxi ganamos	5	0	0	5	3	25	0
Etxe Mobil	5	0	0	5	2	40	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	
Insert Coin	5	5	0	0	26	4	10
Argi Ibili	5	4	0	1	38	11	8
Okoretegi	5	3	2	0	30	9	8
Cerveceria Leniz	5	4	0	1	19	7	8
Naranja Mecanica	5	4	0	1	24	13	8
Jotakabau	5	4	0	1	18	18	8
Motz	5	3	1	1	21	14	7
ZZPPW7	5	2	2	1	23	14	6
La mosca gao	5	2	2	1	28	24	6
Los Innombrables	5	2	2	1	21	22	6
Fosforos	5	2	1	2	17	18	5
Ke oxtias!!	5	1	2	2	19	17	4
Diego Antonio	5	2	0	3	18	21	4
Ganbelas	5	2	0	3	22	26	4
Los Heredia	5	2	0	3	16	22	4
Sobred. de Txreira	5	2	0	3	14	22	4
Perrahotsa	5	0	3	2	12	16	3
Kinder konpresa	5	1	1	3	14	21	3
Pepelus	5	0	2	3	9	13	2
Gualtrapas IK	5	0	1	4	12	31	1
Elisabeth	5	0	1	4	8	33	1
Hapoel Jamon	5	0	0	5	7	40	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	
Txeyenex	5	4	1	0	23	10	9
Sortu Informatika	5	4	0	1	28	9	8
AC Surkos	5	4	0	1	45	16	8
Bedarreta taberna	5	4	0	1	27	12	8
MSM Ing. Integral	5	4	0	1	24	15	8
Orlando Piratas	5	4	0	1	26	23	8
Sokoakoak	5	3	0	2	31	13	6
Nuevo taberna	5	2	2	1	20	15	6
Los Dimy	5	3	0	2	23	25	6
Lautherbrunnen	5	3	0	2	16	20	6
Danok Lagun	5	2	1	2	14	17	5
KK Jaurilaritzari	5	2	1	2	18	23	5
Adelaida	5	2	1	2	16	24	5
Koka Juniors	5	1	2	2	14	14	4
Hirei	5	2	0	3	19	21	4
Anbotoste KT	5	2	0	3	12	16	4
Rotor de Bolbogr.	5	1	1	3	4	20	3
Tronkoteak	5	1	0	4	10	19	2
Iluna taberna	5	1	0	4	13	25	2
Bukanak	5	1	0	4	15	37	2
Cartonajes Igamo	5	0	1	4	9	21	1
Borrock'n roll	5	0	0	5	15	28	0



**ATSEDENERAKO TARTEA** guztiz beharrezkoa izaten da: tragoskada bat egin, atsedeen apur bat hartu, animoak baretu, elkarrekin hitzegin eta bigarren zatirako estrategia pentsatzeko.

## Labur

### A taldea

Alai goz. 1 Lorategi Potroak 9  
Aurrera bolie 2 Irati STS 8  
Baneuko 3 Kriskibalda 2  
Berango Suk. 1 Arrogoi tab. 4  
Galartza kont. 6 Ojo Avisore 1  
Etxe Mobil 0 Betrayer 7  
Viboras 5 Abinagraus 6  
Totem 6 Leya 2  
Kaxi Ganamos 0 Potosorri 1  
Onaniereng 1 DKB 1  
Me la Pela 2 Pipwhis 4

### B taldea

Los Innombrables 1 ZZPPW7 1  
Kinder Konpresa 6 Motz 3  
Sobredosis de Txreira 0 Insert Coin 7  
La mosca gao 6 Ganbelas 4  
Diego Antonio 4 Ke Oxtias!! 2  
Hapoel Jamon 1 Argi Ibili 14  
Fosforos 3 Okoretegi 3  
Elisabeth 3 Jotakabau 4  
Gualtrapas IK 2 Cerv. Leniz 10  
Los Heredia 4 Naranja Mec. 7  
Perrahotsa 3 Pepelus 3

### D taldea

MSM Ing. Int. 6 Cart. Igamo 3  
Nuevo Taberna 6 Danok Lagun 4  
Koka Juniors 2 Bedarreta tab. 3  
Sortu Inform. 9 Orlando Pirates 0  
Anbotoste KT 4 Iluna taberna 0  
Borrock'n roll 2 Lautherbrunnen 5  
Los Dimy 6 Sokoakoak 4  
Hirei 4 Rotor de Bolbogrado 0  
Tronkoteak 0 Txeyenex 5  
Adelaida 2 AC Surkos 6  
Bukanak 4 KK Jaurilaritzari 7

## Hurrengo partiduak

### 5. ihardunaldia

#### Azaroak 9, larunbata Zaldibar

8.50 Rotor de Bolbogrado - Los Dimy  
10 Lautherbrunnen - Anbotoste KT  
11 Pipwhis - Onaniereng  
12 Betrayer - Galartza Kontenedoreak  
13 Arrogoi taberna - Baneuko  
14 Insert Coin - Kinder Konpresa  
15 Leya - Viboras  
16 ZZPPW7 - Perrahotsa  
17 Ganbelas - Sobredosis de Txreira  
18 Potosorri - Totem  
19 Cerveceria Leniz - Elisabeth

### Iturripe A

12 Ke Oxtias!! - La mosca gao  
13 Danok Lagun - MSM Ingenieria Integral  
14 Lorategi Potroak - Me la pela  
15 Iluna taberna - Sortu Informatika  
16 Kriskibalda - Aurrera bolie  
17 Bedarreta taberna - Nuevo taberna  
18 Pepelus - Los Heredia

### Iturripe B

13 Argi Ibili - Diego Antonio  
14 Irati STS - Alai gozokiak  
15 Ojo Avisore - Berango Sukaldeak  
16 Jotakabau - Fosforos  
17 KK Jaurilaritzari - Adelaida Aldibi

18 Orlando Pirates - Koka Juniors

### Azaroak 10, igandea Zaldibar

8.50 Motz - Los Innombrables  
10 Abinagraus - Etxe Mobil  
11 Sokoakoak - Borrock'n roll  
12 Txeyenex - Hirei  
13 Cartonajes Igamo - Bukanak

### Iturripe A

11 Okoretegi - Hapoel Jamon  
12 AC Surkos - Tronkoteak  
13 Naranja Mecanica - Gualtrapas

## GOIO ARANA (ARRASATE PRESS-EKO DISEINATZAILEA)

# “Aldizkari argia eta erosoa”

**Ordenagailuko arratoia mugituz eta buruari hainbat buelta emanda lortzen du Goio Aranak Arrasate Pressi itxura ematea. Astero-astero egin beharreko lanak nahikoa denbora kentzen dion arren, aldizkariak aurrerantzean izango duen itxura berria diseinatzeko denbora aurkitu du 34 urteko arrasatearrak. Horrez gain, orain dela gutxi astebeteko tartea hartu zuen diseinuari buruz EEBBtan egin zen kongresura joateko.**

**– Zergatik diseinu aldaketa?**

– Estetika aldatuz doa, une batean egoki dena handik urte batzuetara ez da egokia, eta horregatik, aldizkariak berak eskatzen du noizean behin aldaketa batzuk egitea. Horrez gain, gauza batzuk aldatu eta

beste berri batzuk sartu guran genbiltzan, eta horiei ere tokia egin behar genien aldizkarian.

**– Zer bilatu nahi izan da aldaketekin?**

– Aldizkaria eguneratu nahi izan dugu estetika eta eduki aldetik. Nire lanari dagokionez, diseinu aldaketarekin aldizkari argia eta erosoa lortzen ahalegindu naiz. Kontuan izanda adin eta perfil desberdineko jendearendako dela, gazte nahiz heldu batendako garbia eta samurra izango den aldizkaria bilatu nahi izan dut.

**– Zein aldaketa egin dira?**

– Normalean aldaketak apurka-apurka sartu dira. Urte eta erdi pasatu da azala aldatu genuenetik, eta orain barrukoa eraldatzea erabaki da. Tipo-

grafia aldetik familia bereko beste letra tipo bat aukeratu dugu, eta gainera, zuri gehiago topatu gura izan dugu argitasuna lortu asmoz. Uste dut orain samurrago ikusten direla gauzak eta informazioa garbiago aurkitu ahal izango dela. Hau da, ez da dena irakurri beharrik izango, sarrerekin edo testuetatik ateratako esaldiekin ere informazioa jaso ahal izango da. Bestalde, publizitatearen kokapena ere aldatu egin da apur bat modu ordenatua goan jarriz. Bukatzeko argazkiei ere garrantzia eman nahi diegu. Argazkiak ez daude orriak janzteko bakarrik, informazioa eduki behar dute edo bestela ez dute zentzurik. Azalari ere garrantzia emango diegu, aurkezpen txartela da eta.

**“Une batean egoki dena handik urte batzuetara ez da egokia, aldizkariak berak eskatzen du aldaketak egitea”**



# alortzen ahalegindu naiz”

**- Aldizkari batean zerk du garrantzia, edukiak ala diseinuak?**

- Biek. Aldizkari bat edukia da. Oso txukuna izan daiteke baina derrigorrez interesatzen eduki behar du. Hala ere bi aspektuak lotuta doaz, irakurterreza izaten bada interesgarria ere izango da eta.

**- Lan handia eman dizu diseinu aldaketak?**

- Diseinuan aldaketak egiten hasi baino lehenago aldizkaria aztertu dugu. Lehenengo zein aldizkari genuen eta zelakoa gura genuen erabaki dugu, eta horrek lan handia eman du. Nire lana zehazki, erabakitakoari forma ematea izan da. Lan handia? Bai, baina polita ere bai.

**- EEBBetako Indianapolis hirian egon berri zara. Zer dela eta?**

- Ni neu SND (*Society of Newspaper Design*) elkarteko bazkide naiz. Diseinua erakargarriagoa zelan egin gaiaz arduratzen da elkarteak, eta urtero kongresua antolatzen du. Gipuzkoako Diputazioarekin laguntzarekin, aurtengo urrian ni neu joan naiz Indianapolisen egin den kongresura. Medio, esperientzia eta langile gehiagorekin beste batzuk zer egiten duten ikustera joan

naiz, gero han ikusitakoa gure mediora aplikatzeko. Horrez gain, baliabide urriak eduki arren produktu arrakastatsuak lortzen dituzten medioei buruzko saioan izan nintzen. Saio horretan, ARRASATE PRESSEN eta herri aldizkarien berri eman nuen eta interesgarria iruditu zitzaizken eta han, ARRASATE PRESSEN ale zaharrak eta berriak erakusteko aukera izan nuen. Egia esan mahainguruko partaideak harrituta geratu ziren ditugun baliabideekin astero hurrelako produktua kaleratzen dugula jakitean. Ondoren, gomendio batzuk eman zizkidaten aldizkaria hobetu ahal izateko.

**- Orain hitzaldi sorta emango diezu herri aldizkarietan diseinuarekin arduratzen direnei.**

**Zein mezurekin?**

- Denok hobetu dezakegu, baina kontuan izan behar da herri aldizkari gehienak baliabide urriekin eta oso lagun gutxiren artean egiten direla. Horiei ezin zaie miraririk eskatu, baina baliabide falta estetikian asko igartzen da. Hala ere, badago uste bat euskaraz kaleratuz gero dena dela ona, eta hori ere ez da egia. Produktu ona kaleratzeko diseinua zaintzea ezinbestekoa dela esango diet.

**- Zein izango da ARRASATE Pressekin emango duen hurrengo pausua?**

- Ale berezietan bigarren kolore bat sartzen hasiko gara, aurrerago kolorea sartu ala ez erabakitzeko. Orain, berriz, Internet munduan sartzen ari gara, eta beharbada aldizkariaren *online* bertsioa egingo dugu Internet-en bidez jaso ahal izateko. ■

“Denok hobetu dezakegu, baina kontuan izan behar da herri aldizkariak baliabide urriekin eta lagun gutxiren artean egiten direla”



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

# Orkatz Skaut Taldeak 1996-97 denboraldiari hasiera eman dio berrogei neska-mutilekin

**O**rkatz Skaut Taldeak aurtengo denboraldiari ekin dio. 40 gazte ari dira taldearen ekintzetan parte hartzen 13 begiralerekin batera. Larunbatero biltzen dira gazte eta begiraleak Altamiran, Herri Gain elkartearen gainean dauzkaten lokaletan eta han ekintza desberdinak burutu eta aurrerago egin nahi direnak pentsatu eta antolatzen dituzte.

Begiraleak berriz, ostira-lerro elkartzen dira, hauen lana ez da gazteekin zapatuan egotera mugatzen eta. Arrasateko Orkatz Skaut Taldea Euskal Herriko Skauten Delegazioaren barruan dago eta horregatik, delegazio mailan antolatzen diren ekintza eta baztarretan parte hartu beharra dute. Delegaziotik datozkien gaien inguruan, Udalarekin duten harremani buruz eta taldearen helburuez hitzegiteko elkartzen dira ostiraletan.

## LAU TALDE

Orkatz Skaut taldea orain



Trebegaiak taldeak aurtengo udan Burgosko Barcenas herritik Vega de Pas-era egindako trabesia.

dela 10 bat urte banatu zen San Viator ikastetxetik eta orduan hartu zuen gaur egun duen izena. Garai hartan, adinaren arabera, 8 taldetan banatuta zeuden taldeko gazteak. Orain, partaide kopuruak behera egin duelako, 4 taldetan banatuta daude: 1.- Koskorrak eta Kaskondoak 2.- Azkarrak I 3.- Azkarrak II 4.- Trebegaiak. Talde bakoitzak

bere ekintzak egiten ditu zapaturo baina nagusien taldeak, Trebegaiak, bere abentura propioak eta ekintzak pentsatu eta finantziaketa moduak bilatzen ditu.

Zapaturo euren lokalean egiten dituzten ekintzez gain, urtean zehar hiru kanpamendu egiten ditu Orkatz Skaut Taldeak: Gabonetan, Aste Santuan eta uztailean. Gabo-

netakoak eta Aste Santukoak 3-4 eguneko iraupena izaten du eta taldearen arabera modu desberdinean gauzatzen da. Gaztetxoek leku finko batean kanpamendua jarri eta hortik irteera eta ekintza desberdinak egiten dituzte. Nagusiagoek berriz, trabesiak egiten dituzte, lekuan lekuko gauak pasatuz. Uztaileko kanpamendua baina, 15 eguneko izaten da eta aurrekoetan bezala, gazteenak leku finko batean geratu eta nagusiak eurak prestatutako 15 eguneko trabesiak egiten dituzte. Marta Zubizarreta skaut taldeko idazkariaren esanetan, "uztaileko kanpamendua noiz heldu desiratzen egoten dira guztiak".

Urriaren 12an hasi zuen Orkatz Skaut Taldeak 96-97 denboraldia baina norbaitek taldean izena eman nahi izango balu, horretarako aukera dago. Zapatuan euren lokalerak hurbildu besterik ez da egin behar. Bazkide kuota hiruhilabeteko 2.500 ptakoa da.

**KARLOS**  
Bitxitegia



Biteri kalea, 13  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 34 26

**AMI oinetakoak**



**OINETAKOEN AUTOZERBITZUA**  
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**FELIPE**  
**MADINA**  
**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

## GREGORIO GARAI

### “Familiakoek asko estimatzen dituzte nik artileaz egindako galtzerdiak”

Gregorio Garaik artilezko galtzerdiak egiteko ohitura dauka aspalditik. Santamasetako artisau ferian sekula ez du hutsegiten baina domekan, lehenengo aldiz, Gatzagakoaan parte hartuko du. Artilearekin lan egiteko afizioa bere amaginarrebarengandik datorkio eta ia ia egunero hartzen ditu lau orratzak galtzerdiak egiteko.

— Artilearekin lan egiteko afizioa, nondik?

— Nire amaginarreba ibiltzen zen artilearekin galtzak etabar egiten. Hark egiteari uzten zionean, nik hartzen nizkion orratzak eta egiten hasten nintzen, eta horrela afizioa sortu zitzaidan.

— Zein ardiren artilea erabiltzen duzu?

— Edozein artzaik ematen didan artilearekin egiten dut lan. Aramaioko lagun batek ematen dit ere, artzaia da eta gainera nire laguna, kintakoa. Marietatik ere ekarri izan dut.

— Zer gauza egiten dituzu?


— Galtzerdiak egiten ditut bakarrik. Ez nintzateke jertse bat egiten hasiko, ezta gutxiago ere. Badakizu zenbateko lana daukan horrek? Sekulakoa! Galtzerdiak berriz, errezago egiten dira eta astean pare bat edo egiten dut.

— Gero saldu egiten dituzu?

— Bai, saldu egiten ditut, baina lagunei... koñatari eta. Gainera horiek ondo ordaintzen didate, asko estimatzen dituzte nire galtzerdiak eta... horiek barik ezin direla ibili esaten dute!

— Zuk zeuk egiten duzu haria?

— Bai. Niri artilea gordinik ematen didate, beraz, hortik haria atera behar da. Lehenengo artilea kardatu eta haria egi-



ten dut maratila bat osatu arte; maratila hori 3 edo 4 egunetan utzi eta gero ostera maratila desegiten dut haria okertuta gera ez dadin. Hori egin ostean galtzerdiak egiten hasten naiz.

— Zoritxarrez, gizon batek puntua egitea ez da oso normala. Zer esaten dizu emazteak?

— Beno, kurioz bada, ezta? Telebista aurrean jartzen naiz eta emazteak zera esaten dit: “Amandreak baino okerragoa zara!”. Lehen berak ere egiten zuen baina orain badu nahikoa lan galtzerdiak egiten hasteko!

— Sei seme-alaba dituzu, egiten dute puntua?

— Ez, ez... esaten diet baina “beranduago, beranduago...” esaten didate. Ez zaie niri beste gustatzen.

— Gatzagako artisau ferian zu bakarrik egongo zara artilea lantzen?

— Ez, Hernaniko emakume bat egongo da nirekin. Hark artilezko galtzontziloak eta guzti egiten ditu... jartzeko modukoak!

## aste gazte

### ■ BEKAK

• Hezkuntza eta Kultur Ministeritzak, ikasleak eskolaratzeko garraiorako banan-banako dirulaguntzak emateko deia egin du, 1996-97 ikasturterako.

• “Barceló Fundazioa”k beka deialdia egin du, 1997-98 ikasturtean Cornellleko (USA) unibertsitatean Turismo eta Ostalaritza masterra osatzeko. Epea: azaroak 15.

• Hezkuntzari loturiko Informazio Teknologien alorrerako formazio beka kale-ratu dira Hezkuntza eta Kultur Ministeritzaren eskutik. Eskariak luzatzeko epea: azaroak 22.

### ■ LANA

• Errenteriako Udalak hiri babeserako teknikari lanpostua bete nahi du. Epea: azaroak 14.

• Europar Parlamentuak konferentzia itzultzaile lanpostuak kaleratu ditu, alemaniar, ingeles, fines, suediar eta frantses hizkuntzetarako. Epe ezberdinak: azaroak 25, 26 eta 27.

### ■ LEHIAKETAK

• Lezon, ipuin, poesia eta saiakuntza lehiaketa martxan da. Epea: azaroak 16.

• Argazki lehiaketak: a) “Fotogazte” Bilboko Udalak antolaturiko lehiaketa. Epea: azaroak 15. b) “Argazki turistikoa” lehiaketa Montoroko (Cordoba) Udalak antolatuta. Epea: azaroak 22. d) “Colmenar Viejo 1996” (Madrid). Epea: azaroak 23. e) Cuenca-ko argazki lehiaketa. Epea: azaroak 30.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

*Arrasatearrak Gatzagako Artisau Ferian parte hartuko du igandean .*

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Pisua salgai Uribe auzoan. 8. zkia. 4. A. Tfnoa: (945) 44 50 64.

• Erdiko kalean pisu bat alokatzen da: 79 18 06.

• Guztiz berrituta dagoen etxebizitza salgai Grupo San Juanen. Tfnoa: 79 19 62. Gaez deitu.

• San Josepe auzoan etxebizitza salgai. Tfnoa: 77 08 06.

• Etxoste kalean etxebizitza salgai. Tfnoa: 77 08 06.

### 3. Errentan emateko

• Pisua alokatzen da Munar auzoan. Tfnoa: 79 77 85.

• Pisua alokatzen da Maalako Errabalean. Tfnoa: 79 31 51.

### 5. Etxe konpartituak

• Donostiako Antiguu auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Tfnoa: 77 00 29 (Josefa) edo 76 44 82 (Jon).

• Pertsona bat behar da pisua osatzeko, gela bakarra izango luke. Bañez doktorea, 2. 3. ezk., interesatuak arratsaldean pasatu.

• Pisua osatzeko pertsona bat behar da San Andres auzoko Errebuelta kalean. Tfnoa: 86 07 86. Alaitz.

• Pertsona bat behar da Oñatin pisua osatzeko. Deitu gaez 78 16 63 tfnora. Karmen.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko lehenengo solairuan garaje itxia saltzen da. Tfnoa: 79 18 70.

• San Andresen garaje plaza salgai. Tfnoa: 79 73 82.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Erguin kalean lokal bat salgai. Tfnoa: 79 18 70.

• Lokala salgai Erguinen, orain dro-

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 / ARRASATE

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

gadenda bezala dago. Tfnoa: 79 89 53.

• Kontsulta amankomuna egiteko lokala salgai. Tfnoa: 79 06 82 eta 79 46 20.

### 14. Errentan emateko

• Martxan dagoen loradenda eskuz aldatzen da. Tfnoa: 79 28 01.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun neska umeak eta nagusiak zaindu eta etxeko lanak egun osoz edo orduka lana egiteko prest. Mirian, 79 31 44.

• Neska batek lana egingo luke arratsaldeko 3etatik aurrera, etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaindu... 79 93 17.

• Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.

• Neska esperientziadunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 95 92. Pili.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 09. Amaia.

• Zure etxea garbitzeko neska gazte baten bila bazabiltza dei egizu 79 46 82 tfnora.

• SOS. Lana behar dut. Emakume gaztea naiz eta bi seme-alaba ditut. Kamarera lana egin izan ditut. Tfnoa: 79 53 18.

• Andra klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.

• Geriatria tituloduna egunez edo gaez pertsona edadetuak edo umeak egunez zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 61 05. Amaia.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 54 06.

• Bi neska jator arratsaldean lan egiteko gertu. Propaganda banatzen onenak gara eta konfidantzazkoak. Tfnoa: 79 52 37 eta 79 74 71.

• Mutila gidari lanak egiteko gertu. Tfnoa: 77 04 20.

• Bergaran taxi plaza eskualdatuko nuke. Tfnoa: 76 44 04.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 95 96.

### 18. Eskaerak

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: (907) 74 21 00.

• Aste bukaeratarako lehenbait lehen pertsona bat behar dugu kalkulo orri simple batera informazioa pasatzeko. Tfnoa: 79 98 37.

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tfnoa: (945) 44 50 86.

• Lorazaintzan esperientziadun mutil bat behar da. Tfnoa: 77 07 02.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. Tfnoa: (907) 74 21 00.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Klase partikularrak ematen ditut Musakolan. Tfnoa: 79 35 24.

• Magisteritzadun neska batek lehen hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren mailako klase partikularrak emango lituzke. 79 26 36 . Rakel.

• Majisteritza daukan neska batek OHoko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 48 64. Ainhoa.

• Klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 06 39.

• Goi mailako industri injinierua klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 51 03 38.

• Injinerutza ikasleak DBH, UBI eta FPko klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 79 16 19.

• OHoko klase partikularrak ematen ditut prezio onean. Frantseseok ere bai. Tituloduna naiz. Tfnoa: 79 50 99.

• OHoko klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 79 98 30.

• Pianoko klase partikularrak ematen ditut maila guztietan. Tfnoa: 79 24 14.

• LH, DBH eta REMeko klase partikularrak emango nituzke. Euskaraz, jakina! Dei egin iluntzeko 8etatik 9etara. Tfnoa: 79 33 39.

## 21. Eskaerak

• Matematika eta matematika finantzieroko klase partikularrak behar ditut. Tfnoa: 79 40 24. Goizez. Libe.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• R11 TXE gorria salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 43 46. Mikel.

• Niva Lada SS-AB autoa salgai. Tfnoa: 76 15 58.

• Ford Scort autoa salgai. 30.000 km. Egoera ona. Tfnoa: 79 22 92.

• Fiat Tempa 140 SX autoa salgai. Tfnoa: 77 06 48. Gaueko 9etatik 10etara deitu.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Sanyo ECR 375 makina erregistratzailea salgai dendarako apropos.

sa. Prezioa: 50.000 pta. Tfnoak: 79 25 96 / 79 99 41.

• Bigarren eskuko bi solarium 20 lanparaduna salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoak: 74 19 23 eta 74 21 82.

• Bigarren eskuko sukaldea laba eta guzti salgai. Egoera ona eta prezio interesgarria. Tfnoa: 79 49 28 dei egin gauez.

• Trabesiako ski ekipoa salgai. Dynastor Extreem taulak, Fritchi fijazioak, Fritchi kutxilak, Fritchi larruak eta 41-42 zenbakiko botak. Prezioa: 35.000 pta. Tfnoa: 79 26 23.

## azoka plaza

Gauzak saldu edo erosteko, laguna agurtzeko, lana aurkitzeko edo etxebizitza topatzeko hau duzu tokirik onena eta gainera prezio ezin hobean,

**0,0 pta.!!!**

• Antiguleko zapatak josteko makina eta zapatak konpontzeko makina salgai. Historikoak dira. Tfnoak: 71 50 72 edo 79 81 70.

### 32. Aurkitu

• Larunbat gauean kotxe baten giltzak aurkitu nituen Arbolapeta inguruan. Jabea Udaltzaingora joan dadila.

### 33. Bestelakoak

• Zaldi bat zure esku 10.000 pta. ilean ordainduz gero. Tfnoa: 76 30 01.

• Tarot kartak irakurtzen ditut. Tfnoa: 79 82 55.

## HARREMANAK

### 34. Agurrak

• Aupa Ixaro! Ezin bazara lanera etorri geu joango gara zure bila. Ez zara libratuko!

• Zorionak Titu! Ederrak zeuden pastak. Hurrengo urtean ere zorianduko zaitugu horrela portatuz gero.

• Ikatzginari: zergatik ez zara aste honetan bazkaltzera etorri? Zure koñatatuak.

• Zorionak Patxi! hamarkadaz aldatzea ez da broma baina zuk jakingo duzu hori ere gaintitzen.

• Oletara joango gara zuri belarririk tira egitera, baina mesedez ez lantjarik jarri!

### 36. Deialdiak


• Azaroaren 30ean bazkaria egingo dute Gasteizen bizi diren arrasatearrek. Zuk ere parte hartu nahi baduzu dei egin: 945- 22 34 97 (Eduerme) edo 945- 14 23 43 (Mila). Bazkaria Zaldiaran jatetxean egingo da.

### 37. Bestelakoak

• Bergara-Donostia, arratsaldeko 5etan joan edo gaueko 10etan etortzen bazara, zurekin gasolina konpartituko nuke. Tfnoa: 76 46 26 (Nekane).

• Luis Etxeberria Erauskin senitartekoek eskerrak eman nahi dizkiete hileta elizkizunetara agertu ziren guztiei. Mila esker.

## Pakete eta dokumentuen garraio urgentea.




Bizkaia Etorbidea,  
16 behea.  
20.500 ARRASATE  
Tfnoa: 79 92 77

**79 92 77**

## ■ **Jasone Mendizabal**

AED ELKARTEKO IDAZKARI OROKORRA



**1** 968ko udan jaio zen, 28 urte ditu. Ezkongabea da eta momentuz ez du seme-alabarik. Enpresa Zientzietan lizentziatua da eta Arrasate Press aldizkarian publizita lana egin zuen. Orain AEDn egiten du lan, bertako Idazkari Orokorra da. Umetan *Ipurdizabal* deitzen ei zioten.

- 1. Zein da zure horoskopoa?**  
Virgo.
- 2. Sinestuna zara?** Ezetz esaten dut, baina gero eta gehiago sinesten dut.
- 3. Animalia bihurtzekotan?** Zaldi.
- 4. Zure akats bat/gauza on bat?**

Erromantika, ameslaria, burugogorra eta nahiko jenio bizikoa. Ona edo txarra den ez dakit.

**5. Zerk lotsarazten zaitu?**

Komunikabideetan irtetzeak, baita galdeketa honek ere.

**6. Amets bat?**

Euskaraz bizi ahal izatea.

**7. Zer kenduko zenuke mundutik?**

Gosea, gerrateak, enbidia, ustelkeria... zerrenda luzeegia litzateke.

**8. Gertakizun historiko bat?**

Franco hil zeneko eguna ondo pasatu nuen.

**9. Nor miresten duzu?** Bittori eta Mattin, Arrasateko hainbat esparrutan egiten duten lanagatik.

**10. Zeri diozu beldurra?** Agian, gaixo egoteari.

**11. Zertaz damutzen zara?**

Akatsengandik ikastea hobe damutzea baino.

**12. Negar egin duzun azken aldia?**

Orain dela 15 egun.

**13. Zer falta zaio Arrasateri?**

Hondartza.

**14. Eta zuri?** Denbora.

**15. Lanbidez aldatzekotan?**

Eskulanekin zerikusia duten ogibideek erakartzen naute.

**16. Arrasateko gustoko toki bat?**

Arbolapeta.

**17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Esandako gauza asko utzi dut egin gabe.

**18. Zein egunkari irakurtzen duzu?** *Euskaldunon Egunkaria*.

**19. Gustoko janari bat?** Edozein salda edo zopa.

**20. Liburu on bat?** Orain *Babilonia* irakurtzen nabil eta ondo dago.

**21. Filmerik onena/txarrena?** Ez naiz zinemara asko joaten baina *Tomates Verdes Fritos* asko gustatu zitzaidan/biolentzia askokoak ez ditut gustoko.

**22. Musika talderik onena/txarrena?** 70. hamarkadako musika/ez dakit.

**23. Telebistako programarik onena/txarrena?** ATBko informatiboa gertutasunagatik/futbola aspergarria iruditzen zait.

**24. Egin dizuten oparirik politena?** Bizikleta bat.

**25. Denbora libre zertan pasatzen duzu?** Afaldu ondoren telebista ikustea eta ohean irakurtzea gustatzen zait. Aste bukaera lagunekin pasatzen dut.

**26. Oporretarako toki bat?** Eguzkia dagoen toki bat.

**27. Etxeko lanik gorrotagarriena?** Harrikoa.

**28. Gomendio bat?** Hemen esandako guztia ez sinistu.

**29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza?** Ematekotan, familiagatik.

**30. 200 milioi irabaziz gero?** Baserri bat erosiko nuke.


# MERCHE

## TAILA GUZTIAK, BEREZIAK BARNE

Erdiko kale, 19 • ARRASATE • Tfnoa: 79 17 92

# AZAROA: udazken bete betea baserrian

Naturaren nahiari jarraitu beharra egoten denez, baserriko lanak sasoiaren araberakoak izaten dira. Urtaroek agintzen dute, eguraldiaren gorabeherak, eta dau den baliabideek. Hala ere, gaur egun baserrietan egiten den lanak ez du zerikusirik sasoi batean egiten zenarekin. Lan zaharrak eta gaurkoak gehienontzat ezezagun samarrak izango direnez, Arrasate Pressek hilerro hilerro emango du sasoi horretan egin beharreko lanen berri. Gutxienez teoria ezaguna izan dadila!



Artoa batzeko sasoi ona izaten zen azaroa.

**B**aserritarrendako ez zen hau sasoirik txarrena izaten. "Gure aittajaunak gustora ikusten zituen antzarrak pasatzen, eguna moztzen zela eta lana gutxitzen zenaren seinale, gainera ganbara beteta egoten zen ordurako. Kukuak kantatzen zuenean beste kontu bat izaten zen, aurrez bildutakotik gutxi geratzen zen eta gogor lanean hasi beharra zegoen". Bixente Pagoagaren hitzak dira aurrekoak, Fidel Berezibarrekin batera aldizkariaren sail honetan laguntzaile izango denarenak.

## AURRERA BEGIRA

Berakatzat landatzen zen

azaroan, idarrak, baba beltzak, eta baita hurrengo urterako garia erein ere. Garia erein aurretik, baina, lurra prestatu beharra zegoen, goldatu lehenengo, goldatu-aitzurtu geroago. Beti ere, azatzak edo gari lerroak, zuzen jarri behar ziren. "Goizeko 8ak alderako sailean egoten ginen, lurra lantzeko. Aurrez, garia erre beharra zegoen, alberkan ura eta kobrearen sulfatoa (garia erretzeko botika) nahastuz. Bustita ereitten zen garia, hartu eta sailean barreiatuz". Goldatze lana gizonezkoek egiten ei zuten; golda-aitzurrez-

koa, berriz, emakumeek eta haurrek. Umeentzat festa handia izaten ei zen garia ereittea, eta saila gorago edo behegera egon aldea ere bazegoela diote. "Hamabost eguneko aldea, bai" Fidel Berezibarren hitzetan.

## LEHENDIK ZETOZENAK

Urritik poliki poliki horituz joandakoko zuhaitzak, hego-haizearen ondorioz hostoak galtzen hasten dira, pagoak, lizarrak, aritzak... Kontraesana dirudi, baina hiltze ar egon arren inguruari itxura bizi bizia emanten diote.

Hostoak ezezik, fruituak batzen hasteko garaia izaten da, intxaurrak, urrak, eta ez dela denbora asko gaztainak batez ere. Egosita jaten ziren lehenengo, erreta denbora aurrera joan ahala. Gainera, Euskal Herrian jende askoren oinarri oinarriko elikadura zen gaztaina. "Zeztegurra ere batzen genuen-dio Fidel Berezibarrek-, 3/4 urteko gaztain adarrak ebakitzeko genituen, gurdian hartu eta Oñatira eramanez, han zeztero asko zeuden eta. Gure aittajauna urtetan joaten zen, 14 bidaia egitera ere iritsi zen. Urtero, azken gurdikara eramatera-koan merienda egiten zuen Oñatiko zezteroeekin eta idi pareak bakarrik bidaltzen zuen etxera bueltan".

Gaztaina bezala, artoa ere batzen zen sasoi honetan, bi eratara batu gainera: bata maluta eta guzti; bestea, burua kenduta. "Igitaiaz ebakitzeko zen artoa, arto-buruak zurutu, lehortzen utzi kamaran eta gero errotara eramaten zen, zorroka, artoirina egin zezaten". Bixentek dioenez, maluta eta guzti ebakitakoa, lastoa kendu ondoren erabiltzen zen, etxaurrean eta botatzeko, neguan lokatzen egin ez zedin. Erabilpen berdinerako biltzen ei zen garoa ere, ganaduari azpiak egiteko ere oso ondo zetorrena. Gaur egun, oraindik baserri batzuetara eramaten da garoa, nahiz eta lehen beste ikusi ez. ■

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tfnoa: 79 31 99 ARRASATE



*Zubia*  
*Cinetakak*

*Doltsak • Zapatak • Gorrakoak*

Mitarte, 14 Tfnoa: 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri, 1 Tfnoa: 79 66 53 ARRASATE

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

■ **Horoskopoa**

- **Aries** Horrela estutzen baduzu gerrikoa ez duzu amasarik hartuko.
- **Taurus** Datozen egunetan hodeiak nagusi izango dira zure buruan.
- **Gemini** Ipurdia mugitzen ez baduzu harrizkoa bihurtuko zaizu.
- **Cancer** Loteria edo primitiba erositak ez zara aberastuko.
- **Leo** Jaten trebea zara baina sukaldean...
- **Virgo** Hainbeste edan... Nola egongo ote dira zure barreak!
- **Libra** Zure gorputzeko tenperaturak nabarmen behera egingo du.
- **Scorpio** Zuk ez duzu beti arrazoia. Besteei ere entzun.
- **Sagitaris** Nork lapurtu du zure bihotzeko giltzatxoa?
- **Capricorn** Esperientziak batzuetan kale egiten du. Kontuz!
- **Aquarius** Hartu bizikleta eta mugitu, alper hori!
- **Piscis** Mila bider eskertuko dizute etxeokoez bidaiatu luzean joatea.

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11			12	
13		14					
15						16	
17					18		
		19					

Juan Bautista Agorria

**Horizontalak** 1. Joseba, AEDko ordezkaria *Topagunean*. 9. Ahalmen. 10. Iparrerarrak. 11. Erretzen ari den edozein gauzak ematen duen bero eta argia. 12. Esnatu aurretik. 13. Joaquin, konpositore espainola. 15. Bidaia luzeen zatietako bakoitza. 16. Pare bat. 17. Mezua eman eta ulertzeko ikur eta arau-multzoa. 18. Biolentziaren Aurkako Mugimendua. 19. (Ald.) Agindu.

**Bertikalak** 1. Zeregin. 2. Zorro txikia. 3. Zirkunferentziaren luzeraren eta diametroaren arteko zatidura. 4. Itxaropena zeharo galtzearen egintza. 5. Bakoitzari lau. 6. Einsteinioa. 7. Oihal mehe gardena. 8. Izen-gabea. 14. (Ald.) Zuhaitzaren enborretatik ateratzen diren besoetako bakoitza. 16. Presio-unitatea. 18. BUDAren kontsonanteak.

Horizontalak: 1. Ezpelteta, 9. Gaitasun, 10. IK, 11. Su, 12. Lo, 13. Turina, 15. Etopa, 16. Bi, 17. Kode, 18. B.A.M., 19. (Ald.) Ordena.  
 Bertikalak: 1. Egitiko, 2. Zakuto, 3. Pi, 4. Eispin, 5. Launa, 6. Es, 7. Tol, 8. Anonimo, 14. (Ald.) Adar, 16. Bar, 18. Bd.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- **Minbiziaren diagnostiko goiztiarra**
- **Menopausia**
- **Ekografia**
- **Haurdunaldiaren kontrola**
- **Mamografiak**
- **Zitologiak**
- **Bularreko patologiaren unitatea**
- **Etab.**

*Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:** **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**



## Euskitze berriketan

Ezkon bidaian egon arren, Xabier Euskitzek ez du Maierrek eta Nereak egin nahi zioten elkarrizketa galtzerik nahi izan. Beraz, bere emaztea eguzkia hartzen utzi eta ATBra hurbildu da bi neska hauekin solasalditxo egiteko... eta aze solasalditxo gainera! Euskitze bertsolari eta kazetariak esandakoak ikusi eta entzun nahi badituzu, hartu ezazu tartetxo bat asteazkenean gaueko 9.30etan eta ATBri so egin: *Lotsa Barik* programa zain duzu!

## Patxi Montero asteko gai mamitsuenekin *Astebete* saioan

Patxi Montero da *Astebete* programaren aurkezle berria. Patxi 29 urte ditu eta gaur egun Herri Irratian ari da lanean. ATBko kolaboratzailea da aspaldidanik baina oraingoan *Astebete* saioa aurkeztu eta zuzentzera animatu da. Astebeten asteko gai mamitsuena sakonki aztertuko ditu.

Gaurko gaiak: Udalak laister zabalduko duen Sexualitate Zerbitzua. Bule-

go horretan lan egingo duten bi neskek, Ana Oiartzunek eta Maitena Zubiak, zerbitzuaren nondik norakoak kontatuko dituzte. Bestalde, Udalak 3. mundurako emandako diru laguntzen artean, Komite Internazionalistak jasotakoarekin Kubako Sagua La Grande hirian aurrera eramango duen proiektuaren berri emango du bertan lanean aritu den Arrasateko neska batek.



### Ion Iñaki Lasaren iritzia Hiperraren mahainguruari buruz

*"Gaia oso interesgarria den arren, zaila da era honetako debate bat ondo zentratzea. Interesak asko dira eta "interesatu txikion" iritziak, garrantzitsuenak azken finean, faltan bota ditut. Eta badakigu, ixilik dagoena ixilik dago".*

Gure Objektibotik. 1996-11-6

## ■ ATBko asteko programazioa

8 Ostirala	11 Astelehena	12 Asteartea	13 Asteazkena	14 Osteguna	15 Ostirala
13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20./20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete Gaiak: Sexualitate zerbitzu berria eta Komite Internazionalistak	20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Mondrasport	13.35 Mondrasport (Errep.) 20/20.30/ 21.00 Berriak 21.30 Lotsa Barik Gonbidatua: Xabier Euskitze	13.35 Lotsa Barik (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Musika	13.35 Musika (Errep.) 19.10 Kukaratxa Motel 20/ 20.30/ 21.00 Berriak 21.30 Kukaratxa Motel	13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/ 20.30/ 21.00 Berriak 21.30 Astebete

**ARRASATE HOTELA**

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16  
ARRASATE

MARIANO ANDRADE SIGANO  
**TAXIA**  
24 orduko zerbitzua  
Hotelak / Aireportua / Ospitaleak...

Tfnoa: 79 96 87 • Tfno mobila: (907) 75 23 85  
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABAETA

**B**enetan ederra aste honetako argazki zaharra. Desagertzeaz dagoen lanbide bat erakusten du, artilea erabiliz jantziak egiteraino zegoen bidearen zati bat. Goruetan egiten ari da argazkiko emakumea, Altamira baserriko amandrea, Ildefonsa. Oinetan eserita bere iloba, Albina Berezibar, 4/5 urte inguru izango zituen orduan. Argazkia Altamira baserriaren barrenean aterata dago eta ukaezina da ingurua erabat aldatuta dagoela gaur egun. Atentzinoa deitzen duen beste gauza bat emakumearen arropa da, bular parean tela gurutzatu eta kitto! zailtasun handi barik jantzia eginda.

Urtea: 1920/25.

Argazkia: Altamira baserrikoak.

Informazioa: Fidel Berezibar.



Biteri, 13  
Tfnoa: 79 21 71  
ARRASATE

*Year*  
oinetakoak

Lehenengo urteurrena!

looky  
Banatzaile ofiziala

Barrenkale, 9  
Tfnoa: 76 22 86  
BERGARA

TELLERIA

AUTO-ESKOLA

Juan Carlos Guerra enparantza  
Tfnoa: 79 18 39  
ARRASATE

Mitarte, 18  
Tfnoa: 79 53 51  
ARETXABALETA

Memesa

79 42 22

HIES  
EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



## HAU DENA ZURETAKO!



*Jean-Luc*

- *Estudioa*
- *Ezkontzako erreportaiak*
- *Bideoa*
- *Argazkiak*

Uribarri, 1 • ARRASATE • Tfnoa: 77 13 64 • Faxe: 75 20 15

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

# UGARTE

**ALTZARIAK  
DEKORAZIOA**

## AROSZTEGIA



San Juan, 1 (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxe: 76 54 91

sofa  
leku

centro  
hogar  
MUEBLES



a, eme... interiores



Estilo  
guztietako altzariak  
aurkituko dituzu  
gure dendetan.

Zatoz, eta zuk  
aukeratu!!



grupo



Amuebladora  
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 79 15 03  
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92  
sofa leku, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 1492